

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

LETREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE LETRAS

## GRADU AMAIERAKO LANA

# **Ikusizko itzulpena euskara-gaztelania norabidean**

Euskal interpreteen errealitatea hiru arlotan:  
konferentzietan, instituzioetan eta justizian

Claudia María Torralba Rubinos  
Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua  
2016/2017 ikasturtea

Tutorea: Koldo Biguri Otxoa de Eribe  
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila (HEIS)

## **AURKIBIDEA**

Laburpena .....	3
Sarrera.....	5
Metodologia.....	7
Zer da ikusizko itzulpena? .....	10
Ikusizko itzulpenaren funtzioak.....	12
Ikusizko itzulpena euskara-gaztelania hizkuntza-konbinaketan: berezitasunak.....	14
Ikusizko itzulpena euskal interpretazioan: funtzio komunikatiboa .....	15
Ikusizko itzulpena konferentzien arloan .....	16
Ikusizko itzulpena arlo instituzionalean.....	20
Ikusizko itzulpena arlo judizialean.....	24
Ikusizko itzulpena euskal interpretazioan: funtzio instrumentala.....	26
Ondorioak .....	28
Erreferentzia bibliografikoak.....	32
Eranskinak .....	33
I. eranskina: galdetegia.....	33
II. eranskina: eredia I (fakultatean irakatsitakoa).....	34
III. eranskina: eredia II.....	36
IV. eranskina: eredia III .....	40
V. eranskina: eredia IV.....	41
VI. eranskina: eredia V.....	42
VII. eranskina : eredia VI.....	46
VIII. eranskina: eredia VII .....	49
IX. eranskina: eredia VIII.....	52

## **TAULEN AURKIBIDEA**

1. taula: interprete kopuruaren eta beren lan-tokien arteko erlazioa.....	9
---	---

## LABURPENA

Izenburuak argi dioen bezala, euskaratik gaztelaniarako ikusizko itzulpena izango da lan deskriptibo honen ardatza. Bi dira nagusiki lan honen bitartez lortu nahiko genituzkeen helburuak: batetik, euskal interpreteen errealitatearen zertzelada batzuk ematea hiru arlotan (konferentzietan, instituzioetan eta justizian), eta, bestetik, euskara-gaztelania hizkuntza-konbinaketan ikusizko itzulpenari buruzko bibliografia propio bat sortzen hasteko lehen urratsak ematea, ikusizko itzulpena euskal interprete profesionalen errealitatean oso presente baitago.

Horretarako, aurkezpentxo orokor bat egin eta erabilitako metodologia azaldu eta gero, marko teoriko batekin emango diogu hasiera gure lanaren muinari: hasteko, ikusizko itzulpena zer den definituko dugu, eta, jarraian, ikusizko itzulpenaren bi funtzioak (funtzio komunikatiboa eta funtzio instrumentala) aztertuko ditugu laburki. Gero, marko teorikoari amaiera emateko, euskara-gaztelania konbinaketak dituen berezitasunei erreparatuko diegu.

Euskal errealitatearen azterketan sartuta, konferentzietako, instituzioetako eta justiziako interpreteen egoera zein den zehazten saiatuko gara, hamalau interpreteri egindako elkarrizketen bitartez. Gure ikerlana funtzio komunikatiboan zentratu da bereziki, baina ez dugu funtzio instrumentala baztertu nahi izan. Zehazki, bederatzi galdera planteatu dizkiegu gure elkarrizketatuei (horietariko bakarra izan da funtzio instrumentalari buruzkoa), eta aztertutako hiru arloak kontuan izanik, galdera bakoitzeko ondorio bat aterako dugu bukaerako atalean. Bederatzi ondorio zehatz horiez gain, beste hiru ondorio orokorrago ateratzeko gai ere izan gara, beraz, ikerketa-lan oparoa izan dela esatera ausartuko ginateke.

Momentu aproposa da azpimarratzeko gai honen inguruko lehen zertzelada batzuk ematea dela gure asmoa; horrenbestez, jakitun gara gure ondorioen behin-behinekotasunaz, lagin txikia erabili baitugu gure hipotesiak formulatzeko. Hala ere, oso interesgarri generitzoke etorkizunean ikerketa-ildo honetan ikertzen jarraitzeari eta ahal beste sakontzeari, interprete profesionalek beren eguneroko lanean aurkitzen baitute ikusizko itzulpena.

Lanari amaiera eman baino lehen, erreferentzia bibliografikoen atalean marko teorikorako baliaitutako materialak bildu ditugu, eta, azkenik, ez dugu lana bukatutzat

eman nahi izan gure ikerketarako ezinbesteko izan zaizkigun hainbat dokumentu atxiki gabe. Eranskinetako dokumentu gehienak interpreteek emandako dokumentu originalen kopiak dira, eta ikusizko itzulpenak egiteko idatzizko testuak nola prestatzen dituzten erakusten dute. Begi bistakoa da interprete bakoitzak bere sistema propioa duela, baina, arretaz begiratuta, badaude beste hainbat ezaugarri komun ere, euskaratik gaztelaniara aldi berean irakurri eta itzultzeko ezinbestean markatu behar direnak. Beharbada bertan aurkituko dugu euskaratik gaztelaniara ikusiz itzultzeko sekretuaren giltza.

## SARRERA

Interpretazio-zerbitzuak gero eta ezinbestekoagoak dira egungo munduan, globalizazioak eta nazioarteko harremanek beraiekin ekarri baitute hizkuntza ezberdinetako hiztunek elkar ulertu beharra. Komunikazio-behar horiek asetzea da, hain zuzen, interpreteen lanaren helburua. Interpreteak zubi-lana egiten du, ez bakarrik hizkuntza ezberdinak darabiltzaten hizlarien artean, baita kultura eta are mundua ulertzeko modu ezberdinen artean ere. Horregatik, oso lanbide berezi eta espezifikoak da interpreteena. Hizkuntzak jakiteaz gain, interpretazioko teknikak ere menderatu behar dituzte, eta hala ere ez da nahikoa: ezinbestekoa da ahalik eta gai gehienen inguruko jakintzak izatea, kultura ezberdinak eta haien berezitasunak ezagutzea eta etengabeko eguneratze-prozesu batean murgildurik egotea.

Dena den, ez dugu munduaren beste puntara joan beharrik interpretazio-zerbitzuak aztertzeko, etxean ere baditugulako. Auzmendik eta Tapiak (1990) duela 27 urte adierazi zuten interpreteen lanbidea nahiko ezezaguna zela euskal hiritar arruntarentzat. Ia hiru hamarkada geroago, errealitateak erakusten du oraindik ere interpreteen lana ez dagoela beharko lukeen bezain integratua gizartean. Integrazio- eta ikusgaitasun-falta hori izan daiteke euskal interpreteek oraindik ere izaten dituzten arazo askoren kausa.

Lan honen gaia ikusizko itzulpena da, zehazki, euskaratik gaztelaniarako ikusizko itzulpena; izan ere, gure errealitateari oso loturik dagoen interpretazio-modalitate bat da, testuinguru jakin batzuetako interpreteek sarritan egin behar izaten dutena. Zenbait adituk diotenaren arabera, badirudi beste hizkuntza-konbinaketa batzuetan ez dela hain arrunta (Arroyo & Sevilla 1993, Trovato 2012) eta, beraz, pentsa liteke gure egoera soziolinguistikoak baduela eraginik horretan. Horrenbestez, ikusizko itzulpenak euskal interprete batzuen eguneroko lanean duen presentzia azalduko lukeen hipotesi bat planteatzen saiatuko gara.

Honako hau izango da gure lanaren egitura: gaiaren muinean sartu baino lehen, baliatu dugun metodologia azalduko dugu. Gero, ikusizko itzulpenaren definizio bateratu bat ematen saiatuko gara, adituak ados jartzen ez badira ere. Ondoren, ikusizko itzulpenaren bi funtzioak aztertuko ditugu laburki: alde batetik, funtzio komunikatiboa eta, bestetik, funtzio instrumental edo pedagogikoa.

Behin marko teoriko orokorra ezarrita, euskara eta gaztelaniaren arteko ikusizko itzulpena lantzeari ekingo diogu, horretarako hizkuntza-konbinaketa horrek dituen ezaugarri propioak deskribatuz. Jarraian, aurretik aipatutako bi funtzioak gurera ekarri eta euskal interpreteen errealitatearen azterketa orokor bat egingo dugu, zehazki, hiru arlotan: konferentzietan, instituzioetan eta justizian. Azkenik, lanari amaiera emateko, gure ikerketa lantxotik ateratako ondorioak aurkeztuko ditugu.

Azterketa horren bitartez euskal interpretazioak bizitako errealitatearen zenbait zertzelada ematea da gure helburua. Hala ere, argi utzi beharrekoa da lan hau ez dela inolaz ere exhaustiboa eta ikerketa sakonagoa beharko litzatekeela egungo errealitatearen irudi fidel eta oso bat erakusteko.

Aipatutako deskribapen huts horrez gain, ikusizko itzulpenaren teknika irakasteak euskal interpreteen formakuntzan duen garrantzia zehazten ere saiatuko gara. Modu horretan lortuko dugu ikusizko itzulpenak dituen bi funtzioak (funtzio komunikatiboa eta instrumentala) uztartzea. Horrenbestez, honako eginkizun hauek aurreikusten ditugu: egun lanean dauden interpreteek euskaratik gaztelaniara egin beharreko ikusizko itzulpenaren errealitatearen deskribapena, ikusizko itzulpena gure interpreteen formakuntzan espezifikoki landu beharrekoa den edo ez zehaztea eta ikusizko itzulpenaren presentzia azalduko lukeen hipotesi bat formulatzea.

## METODOLOGIA

Asko orokortuz, lan hau hiru atal handitan banaturik dagoela esan daiteke: lehena, marko teorikoa; bigarrena, elkarrizketetan oinarritutako lan deskriptiboa; eta hirugarrena, ondorioak.

Lehen atala osatzeko erreferentzia bibliografikoen atalean kontsulta daitezkeen materialak baliatu ditugu. Aritu batzuek ikusizko itzulpenean beste arlo batzuetan baino gutxiago ikertu dela salatu dute (Trovato 2012), eta, hori dela eta, bilaketa-lan nahiko sakona egin behar izan dugu. Dokumentazio-lan horri dagokionez, onartu behar dugu hasiera batean uste genuena baino gehiago landu dela ikusizko itzulpena maila teorikoan, baina, tamalez, ikusizko itzulpenarekin harreman zuzena duten erreferentzia gehienak beste hizkuntza-konbinazio batzuei buruzkoak dira, nabarmenki Europako hizkuntza hegemonikoei buruzkoak. Horrexegatik, interesgarria litzateke etorkizunean euskara-gaztelania konbinaketako ikusizko itzulpenari buruzko bibliografia xeheago bat sortzen hastea; izan ere, gure hizkuntza-konbinaketa oso ezberdina da, eta ezin zaizkio beste hizkuntza-konbinaketa batzuetan baliagarriak diren metodologia eta teknikak aplikatu. Are gehiago, ikusizko itzulpenak euskal interpretazioan duen presentziak justifikatuko luke bibliografia sakonago baten beharra, ulergarria baita maiztasun gutxiarekin egiten den interpretazio-modalitate bati buruz gutxi ikertu izana. Beharbada lantxo hau izan daiteke bibliografia hori sortzen hasteko lehen pauso bat.

Bigarren atala osatzeko, oster, egun aktibo dauden hamalau interpreteri egindako elkarrizketak baliatu ditugu. Azken finean, nork ezagutuko ditu lanbidearen gorabeherak lanean dabiltzanak baino hobeto? Elkarrizketa horietan bederatzi galdera zehatz egin dizkiegu. Azpimarratzekoa da interprete guztiek laguntzeko erakutsi duten prestasuna, gustura erantzun baitiete bederatzi galdera horiei eta hitz egin ahala sortu diren beste askori ere. Hona hemen gure ikerlanerako prestatutako galderak:

1. Egin behar izaten duzu idatzitako testu baten aldibereko itzulpenik?
2. Egoera aldatu al da aldibereko interpretazioan lanean hasi zinetik hona?
3. Aldez aurretik jasotzen dituzu testuak normalean? Zenbat denbora lehenago?

4. Izaten duzu testuak prestatzeko aukerarik edo denborarik? Zenbat denbora? Erantzuna baiezkoa bada, zein teknika erabiltzen duzu?
5. Teknika hori modu autodidaktan garatutakoa da edo jaso duzu ikusizko itzulpenean formakuntza espezifikoren bat? Ezagutzen al duzu interpretazio mota berezi horri buruzko bibliografiarik? Zein?
6. Esango zenuke beharrezkoa dela protokolo bat ezartzea?
7. Esango zenuke beharrezkoa dela unibertsitatean etorkizuneko euskal interpreteei ikusizko itzulpenean formakuntza espezifikoa ematea?
8. Zergatik uste duzu euskarazko hitzaldi inprobisatuak eman beharrean testuak irakurtzeko tendentzia gero eta nabarmenagoa dela?
9. Posible zenuke testu idatziak irakurtzen dituzten hizlarien tipologiarik edo nolabaiteko azalpenik ematea? (Politikarien kasuan, adibidez, hasi berriak/esperientziadunak; hitzaldien kasuan, akademikoak, erakundeetako ordezkariak...)

Galderak zeintzuk izan diren zehazteaz gain (I. eranskinean ere eskuragarri daude), garrantzitsua da azpimarratzea gure galdetegiari erantzun dioten interpreteak hautatzeko irizpide konkretu bati jarraitu diogula: guztiek egiten duten lan konferentzietan, instituzioetan edo justizian. Zehazki, hamalautik lau konferentzietan ibiltzen dira, sei instituzioetan eta lau justizian. Hiru bloke handi horiek bereiziz, euskal interpretazioaren merkatu-perspektiba zabalago bat aztertu nahi izan dugu. Tamalez, azterketa partziala izan dela aitortu beharrean gaude beste behin ere, denbora eta lanaren muga direla medio ezin izan baitiegu merkatu guztiei erreparatu.

Elkarrizketatuen izen-abizenak hemen agertuko ez diren arren, uste dugu argigarria eta ondorioak ateratzeko erabakigarria izan daitekeela interprete horiek zehazki non lan egiten duten jakitea, eta, beraz, hona hemen interprete kopuruaren eta beren lantokien arteko erlazioa:



### 1. taula: interprete kopuruaren eta beren lan-tokien arteko erlazioa

<b>Konferentzietako interpreteak (4)</b>	<b>Instituzioetako interpreteak (6)</b>	<b>Justiziako interpreteak (4)</b>
Lantoki finkorik ez (4)	Eusko Legebiltzarra (1)	Bilboko Justizia Jauregia (3)
—	Nafarroako Parlamentua (3)	Gasteizko Justizia Jauregia (1)
—	Gipuzkoako Batzar Nagusiak (1)	—
—	Madrilgo Senatua (1)	—

Azkenik, interpreteek emandako erantzunak eskuan, hainbat ondorio ateratzeko gai izan gara. Hala ere, badakigu ondorio horiek behin-behinekoak direla eta ikerketa sakonago bat beharko litzatekeela zuzenak diren ala ez demostratzeko.

Behin metodologia aztertuta, goazen orain gure lanaren mamira. Ordena logiko bati jarraitzeko, lehenik eta behin ikusizko itzulpena zer den definitzetik hasiko gara.

## ZER DA IKUSIZKO ITZULPENA?

Maila teorikoan ikusizko itzulpena landu eta aztertu bada ere, badirudi hartzailer gehienek ez dakitela ikusizko itzulpena zer den. Horren inguruan, honako hau uste dute Arroyok eta Sevillak: “Existitzen diren itzulpengintza eta interpretazio mota guztien artetik, ikusizko itzulpena (*traduction à vue, translation on seight*) izan daiteke, beharbada, publikoarentzat ezezagunena.”<sup>1</sup> (Arroyo & Sevilla 1993: 253)

Publikoa alde batera utzita, adituen artean ere ez daude gauzak hain argi. Hainbat arrazoi direla medio, ikusizko itzulpenak ez du, oraingoz behintzat, aditu guztien iritziak bateratuko dituen definizio bat. Adostasun falta horren kausak anitzak dira. Hasteko, ikusizko itzulpena bera zer den ere eztabaida-iturri da. Aditu batzuek interpretazioaren menpeko azpi-diziplinatzat dute (Arroyo & Sevilla 1993), beste batzuek teknikatzat (Auzmendi 1994) edo itzulpen motatzat (Hurtado Albir 2011), eta badago betetzen duen funtzioaren arabera interpretazio-modalitate independente zein itzulpen- edo pedagogia-estrategia izan daitekeela uste duenik ere (Jiménez Ivars & Hurtado Albir 2003). Gu azken horiekin gatoz bat, eta hori izango da, beraz, gure lana garatzeko premisa: ikusizko itzulpena interpretazio-modalitate independente zein itzulpen- nahiz pedagogia-estrategia izan daiteke duen funtzioaren arabera. Dena den, terminologia finkaturik ez egoteak gehiago zailtzen du definizio bat eta bakarra ematea, eta Jiménez Ivars-ek eta Hurtado Albirrek dioten bezala, ikusizko itzulpenari “hainbat izen ematen zaizkio gehienetan itzulpen-jarduera berari buruz ari garen edo ez zehaztu gabe”.<sup>2</sup> (Jiménez Ivars & Hurtado Albir 2003: 47)

Heterogeneotasun horren aurrean badago, dena den, adostasun-puntu bat: denek uste dute itzulpenaren eta interpretazioaren erdibideko jarduera bat dela ikusizko itzulpena, eta horrexegatik hain zuzen eskatzen dituela praktika gurutzatuak. Hortaz, asko sinplifikatuz eta bai Jiménez Ivarsek eta Hurtado Albirrek (2003), bai Curves-ek, Klein-ek, Rivak eta Wuilmart-ek (1986) emandako definizioei jarraiki, esan genezake ikusizko itzulpena jatorrizko hizkuntzan idatzitako testu bat xede hizkuntzan ahoz birformulatzea dela.

---

<sup>1</sup> De todos los tipos de traducciones e interpretaciones existentes, quizá la traducción a la vista (*traduction à vue, translation on seight*) sea la menos conocida por el gran público.

<sup>2</sup> Recibe distintas denominaciones sin que se clarifique habitualmente si se trata de una misma actividad de traducción o de actividades distintas.

Logikoaenez, interpreteak ezinbestean jaso behar du hizlariak irakurriko duen testu idatzi hori, eta ez azken momentuan, baizik eta alde zurretik eta prestatzeko denbora nahikoarekin, kalitatezko itzulpen bat espero bada behintzat. Are garrantzitsuagoa da prestakuntza hori sintaxi-molde ezberdinak dituzten hizkuntzen kasuan, eta hori da hain zuzen euskara-gaztelania hizkuntza-konbinaketarekin gertatzen dena. Aurrerago azalduko ditugu sintaxi-kontu horiek xeheago.

Aurretiaz jasota, testua idatziz itzultzeko aukera izaten dute askotan interpreteek, eta horrela bermatu daiteke itzulpenaren kalitatea, bai forma, bai eduki aldetik. Logikoa dirudien arren, errealitateak erakusten du interpretazioaren jaiotzatik beti errespetatu ez den baldintzetako bat izan dela hori. Interpretazioa Nurenberg-eko epaiketetan jaiio zela esaten da sarritan, eta Baigorri (2000) jasotakoari jarraiki, jada orduan, ofizioaren hastapenetan, egin behar izan zioten aurre ikusizko itzulpenari interpreteek:

Dena den, interpreteak gehien beldurtzen zituena hizlariak paper bat atera eta irakurtzen hastea zen, interpreteari kopiarik eman gabe. Orokorrean interpreteek jasotzen zuten irakurritako interbentzioaren kopia bat, baina ez zen beti horrela izaten (Gaskin [Uiberall], 1990:46). Kasu horietan hizlariak ez du pentsatu behar zer esango duen, eta horregatik hitz egiten du askoz azkarrago, eta interpreteak hizlariari jarraitzeko zailtasun handiak ditu. Hala eta guztiz ere, argumentua delikatuia zenetan, bereziki garrantzitsua zen interpreteek dokumentuaren beraren itzulpena edukitzea, baldin eta existitzen bazen. (Baigorri 2000: 298)<sup>3</sup>

Hala ere, ez dugu 1945eko Alemaniara joan beharrik arazo horrekin aurkitzeko. Tapiak eta Auzmendik 1990eko beren artikuluan salatu zuten euskal interpreteek (jasotzekotan) azken orduan jasotzen zituztela testuak, zailtasun handiak izaten zituztela mezua idatzitik ahozkoa pasatzeko, eta, ondorioz, mezua gaizki eman edo gal zitekeela.

Beranduago ikusiko dugu egungo euskal interpreteek irakurritako diskurtsoaren kopia bat jasotzen duten ala ez, eta, jasotzekotan, zenbateko denborarekin jasotzen duten, idatziz itzultzeko aukerarik duten ala ez ...

---

<sup>3</sup> La situación más temida por los intérpretes, no obstante, era aquella en que el orador sacaba un papel y se ponía a leerlo sin haber entregado un ejemplar del mismo al intérprete. En general, los intérpretes recibían una copia de la intervención leída, pero no siempre era así (Gaskin [Uiberall], 1990:46). En esos casos el orador no tiene que pensar lo que va a decir, por lo que habla a un ritmo mucho más rápido y el intérprete tiene enormes dificultades para seguirlo. De todos modos, en ocasiones en que el argumento era delicado, resultaba especialmente importante que los intérpretes tuvieran incluso la traducción del documento, si existía.

## **IKUSIZKO ITZULPENAREN FUNTZIOAK**

Hurtado Albirrek ikusizko itzulpenak bi funtzio izan ditzakeela proposatu zuen 1995ean, *Modalidades y tipos de traducción* izeneko artikuluan. Artikulu horretan planteatu zuen lehenengoz bere hipotesia, eta, gerora, 2003an, ikusizko itzulpenari dedikatutako artikulu xeheago bat argitaratu zuen Jiménez Ivarsekin batera: *Variedades de traducción a la vista. Definición y clasificación*. Azken hori izan da guk gure lana egiteko baliatu duguna. Zoritxarrez, ideia nagusiak baino ezingo ditugu aurkeztu hemen, funtsean lan deskriptiboa delako gurea, baina guztiz gomendagarria deritzogu artikulua osorik irakurtzeari.

Asko laburtuz, Jiménez Ivarsek eta Hurtado Albirrek (2003) ikusizko itzulpenak bi funtzio dituela planteatzen dute: funtzio komunikatiboa eta funtzio instrumentala.

Funtzio komunikatiboa duenean, ikusizko itzulpena interpretazio-modalitatetzat hartzen dute; izan ere, zuzenean itzultzen da entzuleentzat. Bi aditu horien arabera, ikusizko itzulpenaren hainbat azpi-mota egongo lirateke kasu horretan, honako faktore hauen arabera: testuaren prestaketa-maila, hartzaileak testuaren edukia ezagutzeko duen interesa, aldibereko diskurtso baten existentzia eta testu idatziaren ezaugarriak. Zoritxarrez, lan honetan ez dugu astirik izango azpi-mota horietan sakontzeko, baina interesgarria litzateke etorkizunean ikusizko itzulpen motak eta azpi-motak bilduko lituzkeen beste lan bat egitea.

Funtzio instrumentala duenean, berriz, helburu konkretu bat lortzeko bitartekari gisa erabiltzen da ikusizko itzulpena aipatutako adituen arabera. Helburu hori irakaskuntza izaten da gehienetan, hala itzulpengintza edo interpretazioarena, nola beste hizkuntza batzuen.

Teoria interesgarria iruditu zaigu Jiménez Ivarsek eta Hurtado Albirrek proposatzen dutena, eta horregatik saiatu gara gure lanean bi funtzio horientzako espazioa uzten. Aitortu behar dugu elkarrizketatuei egindako galdera gehienek funtzio komunikatiboarekin dutela zerikusia, hau da, aldibereko interpretazioak egiten ari direnean itzuli behar izaten dituzten testu idatziekin. Logikoa da, izan ere, lan-munduko errealitatearen deskribapena egitea da lan honen helburua, eta ez ikusizko itzulpenak pedagogian izan ditzakeen aplikazioak aztertzea. Hala ere, funtzio instrumental edo pedagogikoa ez dugu alde batera utzi nahi izan, eta horregatik planteatu diegu

interpreteei beren formakuntzari eta etorkizuneko interpreteen formakuntzari buruzko galdera bat. Sarreran aipatu bezala, helburua interpreteen formakuntzan ikusizko itzulpena espezifikoki landu beharrekoa den edo ez zehaztea izan da. Ikusiko dugu zein izan den interpreteen erantzuna.

## **IKUSIZKO ITZULPENA EUSKARA-GAZTELANIA HIZKUNTZA-KONBINAKETAN: BEREZITASUNAK**

Euskara eta gaztelania milaka urtez egon dira kontaktuan, eta, ondorioz, hizkuntza batetik bestera egindako transferentzia-adibideak oso ugariak dira, bereziki maila lexikoan. Maila sintaktikoan ere egon dira interferentzia batzuk, baina hizkuntzalaritza-kontu sakonegietan sartu gabe eta askoz sinplifikatuz, esan genezake euskarak eta gaztelaniak hitz-hurrenkera ezberdinak baliatzen dituztela modu naturalean. Azkoagak eta Ordiziak (2016) ondorioztatu zuten euskaraz SOV hurrenkera har daitekeela kanonikotzat, gaztelaniaz SVO hurrenkera gailentzen delarik (Contreras 1998, Fernández Soriano 1993 & Zubizarreta 1999). Hitz-hurrenkera ezberdinak asko zailtzen du interpretearen lana, izan ere, euskaraz joera dago aditza bukaerara uzteko, eta gaztelaniaz askoz lehenago ematen da. Adibide konkretu batekin oso ondo ikusten dira sor daitezkeen zailtasunak: euskarazko esaldia bukatu arte interpreteak ez du jakingo zein izango den gaztelaniaz eman beharreko aditza, eta beraz, denbora luzeagoz zain egoteaz gain, aurretik esandako elementu guztiak gogoratu beharko ditu gaztelaniazko aditzaren atzetik esateko informazio berria entzuten duen bitartean.

Euskararen berezko SOV egitura hori ahozko jardunean erabiltzeaz gain, idatzikoan ere barra-barra erabiltzen da, hala sustatzen baitu hezkuntza-sistemak. Aditza aurreratzeko gomendioa ematen den arren, egunerokotasunean ikusten da oraindik ere joera dagoela atzerakarga izugarria duten esaldiak sortzeko. Izan ere, badirudi aditza aurreratzek eta esaldi motzagoak egiteak “sinpletu” egiten duela diskurtsoa, “sinple” hitza bere konnotazio negatibo guztiekin ulertuta. Arazoa da askotan esaldi “eder” eta “landu” horiek osatzeko saiakeran mezua galtzen dela.

Aipatutako hitz-hurrenkera ezberdinagatik, euskaratik gaztelaniara egindako ikusizko itzulpenak teknika berezi eta konkretu baten beharra du. Geroago ikusiko dugu euskal interpreteek ezagutza jakin hori norbaitengandik jaso edo modu autodidaktan garatu duten.

## **IKUSIZKO ITZULPENA EUSKAL INTERPRETAZIOAN: FUNTZIO KOMUNIKATIBOA**

Aurretik aipatu bezala, euskaratik gaztelaniara itzultzen duten interpreteek ikusizko itzulpenarekin zein harreman duten zehazten saiatu gara lan honetan. Horretarako, gogoraraziko dugu hamalau interpreteri egin diegula elkarrizketa; horietariko lau konferentzia-arlokoak izan dira, sei instituzio-arlokoak eta beste lau justizia-arlokoak. Denek erantzun diete bederatzi galderako galdetegi bati, eta, horrez gain, beste datu eta informazio interesgarri batzuk ere eman dizkigute.

Alde handia egon hiru arloetako interpreteen erantzunen artean, eta beraz, egokia deritzogu arlo bakoitza modu independentean aztertzeari. Hala ere, ondorioak ateratzeko hiru blokeetako erantzunak hartuko ditugu kontuan, ezberdinak izanik ere, hirurak euskal interpreteen errealitatearen parte direlako. Are gehiago, konferentzia-, instituzio- eta justizia-arloko interpreteen erantzunak hain ezberdinak izateak uzten du agerian ikusizko itzulpenaren errealitatea euskara-gaztelania konbinaketan anitza eta heterogeneoa dela.

Hasteko, konferentzietako interpreteek emandako erantzunak aztertuko ditugu, gero instituzioetakoena eta, azkenik, justiziakoena.

## **IKUSIZKO ITZULPENA KONFERENTZIEN ARLOAN**

Konferentzien arloan antolatzaileak dira interpreteak baliatzea edo ez baliatzea erabakitzen dutenak, eta esan liteke gurean ohikoena interpreteak euskaraz egingo diren interbentzioak gaztelaniara itzultzeko kontratatzea dela, nahiz eta alderantzizkoa ere egiten eta eskatzen den. Logikoa da gehienetan euskara-gaztelania noranzkoan izatea, izan ere, konferentzia-aretoetan sarritan egoten dira euskaraz ez dakiten bertako nahiz kanpoko entzuleak. Gainera, ez dugu ahaztu behar konferentziak testuinguru formaletan egin ohi direla, eta horrenbestez, hizlariak beren materialak ondo prestatuta eramaten dituztela gehienetan, baita ponentziak osorik idatziak ere batzuetan. Esandako guztiagatik eta elkarrizketatutako interpreteek esandakoari jarraiki, konferentzietan ikusizko itzulpena oso sarritan egin behar izaten dela baieztatu dezakegu.

Aipatu dugu jada, hizlariak prestakuntza-lan handia egiten dute aurretiaz. Sortu zaigun zalantza, beraz, honako hau da: behin prestakuntza-lana eginda, helarazten al diete interpreteei hitzaldia emateko baliatuko duten materiala? Orokortasunetik aldenduz, oraindik ere badaude testuak azken momentuan entregatzen dituzten hizlariak. Hala ere, kasuistika zabala da, eta normalean interpreteek aurretiaz jasotzen dituzte hizlariak prestatutako testuak, gehienetan aurreko egunean edo pare bat egun lehenago.

Enpresaren bat bitartekari-lanak egiten dabilenean, enpresa bera arduratzen da aipatutako materiala eskuratzeaz, baina, hala eta guztiz ere, askotan interpreteak ibili behar izaten dira hizlarien atzetik testu- eta material-eskean. Hitzaldiak ematera ohituta dauden hizlariekin ez dute arazo handiegirik izaten, baina beti egoten da azken momentura arte materialik entregatzen ez duen norbait. Zentzu horretan, elkarrizketatutako interpreteek beharrezko ikusten dute nolabaiteko protokolo bat ezartzea, baina protokolo hori enpresa bitartekariei eta, batez ere, antolatzaileei zuzendu beharko litzaiekeela uste dute, eta ez hainbeste hizlariari. Galdera egin genienean, elkarrizketatutako bi interpreteek jakinarazi ziguten ezagutzen zutela enpresa batean interpreteen lan-baldintzak ezartzeko zabalduko zirkular bat. Oso positiboa iruditu zitzaigun, izan ere, zirkular hori zabalduko interpreteek dituzten arazo eta beharrei buruzko kontzientzia zabaldu ere bada.

Behin testuak eskuratuta, interpreteek ematen duten hurrengo urratsa aldakorra da gaiaren espezifikotasunaren, hitzaldiaren iraupenaren, hizlariaren esperientziaren eta beste hainbat faktoreren arabera. Dena den, elkarrizketatutako lau interpreteak bat datoz



testua osorik itzuliko ez luketela esatean. Guztiek egingo lukete ikusizko itzulpena egiteko prestaketa, betiere kontuan izanik dokumentazio-lan sakonagoa ere egingo luketela hitzaldian landuko diren kontzeptu eta terminoei dagokionez. Patxadaz egindako prestakuntza-lan bat izango litzateke kasu horretan, eta ez azkeneko bost minutuetan egin beharrekoa. Oso garrantzitsua deritzogu horri, ezin baitugu ahaztu prestakuntzarako denbora izatea kalitatearen berme ere badela.

Aipatutako prestakuntza hori egiteko teknikari dagokionez, bi multzotan sailkatu behar ditugu elkarrizketatutako interpreteak:

Alde batetik, bik eskarmentu handiagoa dute eta urte gehiago daramatzate interpretazio-munduan, baina ez dute inolako prestakuntza espezifikorik jaso ikusizko itzulpena egiteko. Horrenbestez, modu autodidaktan garatutako teknika erabiltzen dute. Normalean aditzak eta problematikoak izan daitezkeen terminoak markatzen dituzte, eta, horrez gain, segmentazio ez-sistematikoa ere egiten dute. Segmentazio hori esaldiak oso luzeak direnean edo eduki aldetik hainbat ideia konplexu aurkezten dituztenean erabiltzen dute batez ere, eta ez dator beti bat esaldi bakarraren luzerarekin, esaldi zati bat edo esaldi bat baino gehiago ere har ditzake segmentu bakar batek. Gainera, askotan geziak baliatzen dituzte atzerakarga handiko esaldietan osagaiak aurreratzeko, eta hitzaldiaren ordena logikoa ez galtzeko oso baliagarria deritzote lokailuak markatzeari. Ikusizko itzulpenari buruzko bibliografiari dagokionez, ez dute lan konkriturik ezagutzen, esperientzia bidezko ikasketa-prozesua bizi izan baitute.

Bestetik, gainontzeko bi interpreteak gazteagoak dira eta hasiberriak interpretazio-lanetan. Momentuz esperientzia falta zaien arren, formakuntza espezifikoagoa jaso dute. Ikusizko itzulpena berariaz landu zuten Itzulpengintza eta Interpretazioko Graduan, eta, horrenbestez, euskaratik gaztelaniara ikusizko itzulpena egiteko teknika edo aholku batzuk jaso zituzten beren formakuntza-prozesuan. Jasotako gomendioei jarraiki, bi interpreteek zentzudun unitateetan oinarritutako segmentazio sistematikoa egiten dute. Horrez gain, eskuinetik ezkerreara irakurtzeko automatismoa garatu dute euskararen eta gaztelaniaren alderantzizko ordena sintaktikoari aurre egiteko, eta, aurrekoek bezalaxe, arazotsuak izan daitezkeen terminoen itzulpenak ondoan apuntatzen dituzte. Horrez gain, bereziki garrantzitsuak izan daitezkeela iruditzen zaizkien elementuak ere nabarmentzen dituzte. Bibliografiari dagokionez, ikusizko itzulpena lantzeko hainbat erreferentzia dituzte ezagun, irakasleen gomendioz irakurri eta landutakoak: James

Nolan-en *Interpretation techniques*, Andrew Gillies-en *Conference interpreting* eta Ildikó Horváth-en *Interpreter behaviour*. Hiru erreferentzia horiek Europako beste hizkuntza batzuen arteko ikusizko itzulpenean zentratzen dira, eta, beraz, hasieran plazaratu dugun baieztapenaren alde egin dute: beharrezkoa da euskara-gaztelania hizkuntza konbinaketan egiten den ikusizko itzulpenari buruzko bibliografia zehatz bat garatzen hastea.

Nahiz eta elkarrizketatutako konferentzietako interpreteak bi multzotan banatu ditugun, egokia deritzogu gogorarazteari interprete bakoitzak teknika bere gaitasun eta beharretara moldatzen duela, eta interprete adina teknika baliagarri egon daitezkeela.

Testuak irakurtzeko tendentziaren zergatiari dagokionez, konferentzietan jendaurrean hitz egitera ohituta ez dauden hizlari asko egoten direla argudiatu dute, eta beraz, ziurtasun-falta handia izan dezaketela. Horrez gain, hizlariak aditu-talde baten aurrean aritzen dira sarritan berauek adituak izan gabe, eta, beraz, ezinbestekoa zaie bai hizkera, bai terminologia asko zaintzea. Horretarako, hitzaldiak aldeztu aurretik prestatuta eramatea oso praktikoa egiten zaie. Era berean, elkarrizketatuek azpimarratu nahi izan dute politikari batzuek esan beharrekoak idatziz eramaten dituztela hitzak oso neurtuta dauzkatelako. Horrelako egoeretan, batzuetan interpreteei testu itzulia ematen diete zuzenean, gaizkiulerturik egon ez dadin.

Gehien irakurtzen duten hizlarien tipologiari erreparatuz, hiru hizlari mota identifikatu dituzte:

- a) Jendaurrean hitz egitera ohituta ez daudenak
- b) Politikariak
- c) Unibertsitateko irakasleak

Azken hizlari-taldeari bereziki interesgarri deritzogu, izan ere, kontraesankorra dirudi. Unibertsitateko irakasle guztiak adituak dira, eta beren jakintza maila altuaz gain, jendaurrean (ikasleen aurrean gehienetan, baina ez bakarrik) hitz egitera ohituta daude. Hala eta guztiz ere, irakurtzeko joera handia erakusten dute, interpreteen arabera. Elkarrizketatutakoek hipotesi modura bota dute beren lanak xehe-xehe erakutsi nahiak (artikuluak, tesiak...) eramanez ditzakeela irakasleak beren testu idatziak irakurtzera.

Azkenik, ikusizko itzulpenaren maiztasunari dagokionez, esperientzia handiena duten interpreteek esan digute betidanik egin behar izan dituztela horrelako lanak, eta

azkenaldian ez dela bereziki gorakadarik egon. Esperientzia gutxiko interpreteak ez dira ausartu, logikoa den bezala, inolako baloraziorik egiten ikusizko itzulpenaren maiztasunaren bilakaerari buruz.

## **IKUSIZKO ITZULPENA ARLO INSTITUZIONALEAN**

Arlo instituzionaleko interpreteen lana ofizialki errekonozitua dagoen arren, askotan “ikusezin” sentitzen dira, hizlariak interpreteak “ahaztu” egiten baitituzte. Konferentzietan ez bezala, arlo honetan ez dago enpresa bitartekaririk, arlo publikoa baita, eta interpreteek errespetarazi behar dituzte beren lan-baldintzak.

Bildu ditugun erantzunei jarraiki orokorrean arlo instituzionalean euskara-gaztelania norabideko ikusizko itzulpena egitea arrunta dela esan daiteke (bataz beste %50ean baino gehiagotan egiten da). Salbuespena litzateke Nafarroako Parlamentuko interpreteen egoera, maiztasun gutxiagoz egiten baitituzte mota horretako itzulpenak. Aldiz, Eusko Legebiltzarrean oso praktika arrunta da, egunero egiten ez bada, astero behintzat egiten dena. Madrilgo Senatuan ere antzekoa zerbait gertatzen da, eta maiztasun gutxiagoz egiten den arren, lana dagoenean ohikoa da ikusizko itzulpena egitea.

Testuak aurretiaz jasotzeko buruz esan behar dugu interpreteei testuak azken momentuan pasatzeko joera dagoela oraindik ere. Nafarroako Parlamentuan gehienetan aurretiaz lortzen dituzte testuak (beranduenez ordu batzuk lehenago), eta egoera pribilegiatu horren aurrean testuak osorik itzultzen dituzte normalean. Hala ere, itzulpena egiteko denbora nahikorik ez balute, nahiago lukete testurik gabeko aldebereko interpretazioa egin, aldi berean irakurri eta entzutea zaila eta nahaspilatsua iruditzen baitzaie. Kontuan hartu beharra dago hizlariak bere diskurtsoan moldaketak egin ditzakeela (gehikuntzak, ezabatzeak, aldaketak...) testua idatziz eraman arren, eta horregatik interpreteak aldi berean entzun eta irakurri behar duela moldaketa horiez jabetzeko. Instituzioetako gainontzeko interpreteek normalean ez dute testua itzultzeko adina denbora, eta, beraz, arin-arin prestatu behar izaten dute ikusizko itzulpenarako, askotan azken bost edo hamar minutuetan.

Prestaketa horretarako interprete bakoitzak bere teknika propioa garatu duela dirudi, bakoitzak norberaren behar eta gaitasunetara egokitu baitu bere sistema pertsonala. Gehienek ez dute ikusizko itzulpenean inolako formakuntzarik jaso, eta bateren batek ikastaroren batean landu zuela aitortu badu ere, denak datoz bat eginaren eginez eta errealtateari aurre egiteko beharragatik menderatu duten teknika bat dela esatean. Horrez gain, batek ere ez du ezagutzen ikusizko itzulpenari buruzko bibliografia konkreturik. Horrek agerian uzten du orain arte ikusizko itzulpena gutxi landu dela,

gutxienez euskara-gaztelania konbinazioan. Galdera hori egitearekin batera, interpreteetako batzuk beren ezjakintasunaz jabetu dira, eta ikusizko itzulpenean maila teorikoan gehiago sakontzeko gogoia sartu zaie. Etengabeko eguneratze hori interpreteen senak eta beharrak bultzatzen du, ezinbestekoa baitzaie ahalik eta gai gehienengatik inguruko ezagutzak izatea.

Esan bezala, bakoitzak bere teknika propioa garatu badu ere, teknika pertsonal horiek guztiek badituzte ezaugarri komun batzuk: denek bilatu eta markatzen dituzte aditzak, denek apuntatzen dituzte arazotsuak izan daitezkeen terminoen itzulpenak eta denek erabiltzen dute nolabaiteko gezi-sistema bat. Hala ere, ez dago denek barneratutako sistema bat eta bakarra. Segmentazioa gutxi batzuek egiten dute, eta ez da esaldiz esaldikoa, gehiago begiratzen dio edukiari formari baino. Horrenbestez, ideia nagusiak azpimarratzeko modu bat dela esan genezake. Batzuek zenbakiak eta letrak ere baliatzen dituzte horretarako. Sistema horiek pertsonalak diren neurrian, beste batzuek egindako testuen prestaketak ez dira baliagarriak gainontzekoentzat, eta, horregatik, kabinan bi interprete daudenean nahiago izaten dute testua banatu, bakoitzak bere zatia prestatu dezan. Hala eta guztiz ere, ez dugu inoiz begien bistatik galdu behar helburua mezua transmititzea dela, eta, beraz, teknika guztiak izan daitezkeela aproposak horretarako.

Ikusizko itzulpena egin beharra arrunta dela esateak berarekin dakar euskaraz hitz egiten duten hizlariak diskurtsoak alde aurretik prestatu eta irakurtzen dituztela onartzea. Elkarrizketatutako interprete gehienek ez lukete jakingo hizlari horien tipologiarik ezartzen, ez baitute uste esperientziarekin, lanpostuarekin, adinarekin ... zerikusia duen zerbait denik. Egia esan, gehiago erlazionatzen dute honako hiru faktore hauekin: hizkuntza-gaitasunarekin, ziurgabetasunarekin eta denbora mugatuarekin.

Hizkuntza-gaitasunak diskurtso idatziak irakurtzeko joerarekin zerikusia izan dezakeela uste dute elkarrizketatuek, baina ez dute faktore nagusitzat hartzen. Izan ere, badago ama-hizkuntza euskara izanik ere diskurtsoak goitik behera irakurtzen duen hizlari euskaldunik. Hala ere, kasu batzuetan eragina izan dezakeen faktoreetako bat dela uste dute, zalantzarik gabe.

Horrez gain, interprete batzuek denbora mugatua seinalatu dute testuak alde aurretik prestatzeko beharraren kausatzat. Ohikoa da hizlariak gauza asko esan beharra oso denbora-tarte motzean, eta testua alde aurretik idaztea eta irakurketaren abiadura

aurretiaz praktikatzea estrategia ona izan daiteke esan nahi duten guztia denbora mugatu horretan esatera iristeko.

Hala ere, ziurgabetasun pertsonalak gehiago konbentzitzen ditu elkarrizketatutakoak, eta ziurtasun-falta hori funtsezkoa iruditu zaigu guri ere, konferentzia-arloan bezalaxe. Gure hezkuntza-sisteman oso gutxi lantzen da jendaurrean hitz egiteko gaitasuna, eta hizlari askok beldurra izateaz gain, ez dituzte zaintzen jendaurrean modu ulergarrian hitz egiteko errespetatu beharreko “urrezko arauak”: oso arin hitz egiten (edo irakurtzen) dute, ez dute ia etenik egiten eta diskurtsoari ez diote ahotsaren modulazioaren bitartez laguntzen. Horrenbestez, ondorioa askotan penagarria da, ez bakarrik interpretearentzat, baita entzuleentzat ere. Horretan ere gauzak ez dira aldatu 1990tik: “Euskal hizlari gehiegi ez daude jendaurrean hitzegiten ohituta beren buruei hitz egiten diete eta honen ondorioak hauek izaten dira: abiadura handiegian hitzegitea, abstrakzio maila altuegia erabiltzea, hizkuntza maila korapilatsua, etab.” (Auzmedi & Tapia 1990: 28)

Aipatutako hiru faktore horiek gorabehera, izugarrizko paradoxa bat gertatzen da horrelako kasuetan: funtzio komunikatiboa duen ikusizko itzulpen baten aurrean bagaude ere, ez da inolaz ere komunikatiboa, euskara ulertzen duten entzuleentzat ere zaila baita diskurtsoari jarraitzea eta edukia ulertu eta barneratzea.

Azkenik, badago aurreko ziurgabetasunaren, denboraren eta hizkuntza-gaitasunaren presiorik ez daukan hizlari mota bat ere. Kontrako ezaugarriak dituen hizlari mota da, hain justu. Hizlari mota horrek hizkuntza-gaitasun handia du, eta baita ezagutza-maila altua ere, horregatik sortu nahi du diskurtso polit, egituratu eta konplexu bat, bere gaitasunak demostratzeko. Horrelako hizlariak lehen aipatutako “urrezko arau” horiek errespetatzen dituzte normalean, eta horregatik izaten dira interpretatzeko zailtasun gutxiago ematen dituzten diskurtsoak, esaldietan atzerakarga presente egonda ere. Konferentzia-arloan aipatutako unibertsitate-irakasleen kasuaren parekoa litzateke hau.

Interprete baten iritziz, oinarrizko ideia faltsu batetik etorri liteke aldeztu aurretik diskurtsoak prestatzeko beharra: oso ohikoa da pentsatzea diskurtso konplexuak direla onenak, errealitatean askoz eraginkorragoa izan daitekeenean diskurtso inprobisatu sinpleago bat. Hipotesi horri jarraiki, diskurtsorik “onena” lortzeko helburuarekin prestatuko lituzkete hizlariak diskurtso izugarri konplexuak idatziz. Horri irakurketa eskas bat gehituta alferrikako diskurtso txarrak sortzen dira. Gure lanean

azpimarratzeko moduko ideia bat iruditu zaigu kontzepzio hori orokortuta dagoelako, interpretazio-munduan gertatzeaz gain, bizitzako beste diziplina askotan ere gertatzen delako.

Konferentzietako interpreteen arloan komentatu dugu protokolo baten beharra ikusten zutela, eta elkarrizketek erakutsi digute instituzioetako arlokoek ere nahi eta behar bera edo handiagoa dutela. Izan ere, pedagogia-lan izugarria egin behar izaten dute hizlariekin, eta interpreteak dira behin eta berriro joan behar izaten direnak testu-eskean, enpresa bitartekaririk gabe lan egiten dutelako. Nekagarria gertatzen zaie hizlarien atzetik ibili behar hori, batez ere jakin badakitelako hizlariak askotan testuak prest dituztela eta “ahaztu” egiten zaiela haiei helaraztea. Gainera, legegintzaldi osoetan zehar izaten dituzte hizlari berak, eta batzuek interpreteen beharrak ulertu eta asetzen dituzten arren, beste askok ez dute beren jarrera aldatzen. Hori guztia arautuko duen protokolo bat ezartzea behar-beharrezkoa da interpreteentzat. Berriro ere, Nafarroako Parlamentuko interpreteak dira zentzu horretan egoera onenean daudenak. Gutxi dira euskara hutsean aritzen diren parlamentariak, eta komunikazioa helburu duten aldetik, interpreteei beharrezko denborarekin helarazten dizkiete testuak, kalitatezko itzulpen bat jaso ahal izateko trukean.

Dena den, elkarrizketatuek modu positiboan hartzen dituzte ikusizko itzulpenak planteatzen dituen erronkak: badakite lehengaia txarra baldin bada zaila dela produktu on bat eskaintzea, eta horregatik prest daude momenturen batean itzulpena eten eta beren lana testurik gabe egitea ezinezkoa dela esateko. Batzuek ez dute inoiz hori egin beharrik izan, eta beste batzuek badituzte horrelako esperientziak kontatzeko. Beste behin ere heterogeneotasunaren aurrean gaude.

Badirudi konfirmatzen ari dela ikusizko itzulpena euskara-gaztelania konbinaketan egin beharra ez dela azken modako gauza. Konferentzia-arloan bezala, interprete guztiek esan digute lanean hasi zirenetik egin dutela topo ikusizko itzulpenarekin, eta ez luketela esango aldaketa nabarmena egon denik azken boladan.

## **IKUSIZKO ITZULPENA ARLO JUDIZIALEAN**

Epaitegietan lan egiten duten itzultzaile-interpreteekin hitz egin eta gero, ikusizko itzulpena arlo judizialean ia anekdotikoa dela esan beharra dugu. Batzuentzat harrigarria suerta daitekeen arren, arlo judizialeko interpreteek aitortu digute ez dutela ia inoiz ikusizko itzulpenik egin beharrik. Pentsatzekoa izan liteke epaitegietako giro formalean euskaraz idatzitako testu luze eta konplexuak irakurtzeko joera dagoela, batez ere abokatuen aldetik, baina interpreteen esperientziak erakusten du oso gutxitan gertatzen direla horrelakoak. Epaitegietan nagusi den premisa bat-batekotasunarena da. Hori dela eta, oso gutxitan eramaten dira goitik behera irakurriko diren testu idatziak. Ondo pentsatuta, zentzuzkoa da, izan ere, epaiketean bertan gertatzen denak (deklarazio baten ñabarduraren bat, kontraesanen bat, froga berriren bat...) baldintzatzen du epaiketaren emaitza eta, ondorioz, baita abokatu, fiskal eta epaileen hitzak ere.

Beren errealitatean presente ez dagoenez, ez dute ikusizko itzulpenari buruzko bibliografiarik ezagutzen, eta noiz edo noiz ikastaroren batean landu badute ere, ez dute inoiz sakondu interpretazio-modalitate horretan.

Epaiketen nolakotasunagatik, interpreteek egiten duten interpretazio mota esan osteko interpretazioa da. Inoiz eduki dute abokatuak irakurriko zuen pasarteren bat aldeztatik itzultzeko aukera (legeren bateko artikuluren bat, estatuturen bateko punturen bat, galdera zehatzen bat...), baina oso gutxitan bizi izan dute egoera hori. Are gehiago, itzulpena aldeztatik prestatuta eramanda ere, abokatuak inprobisazio-lan handia egin behar izaten dute epaiketetan, eta, horrenbestez, interpreteek aitortzen dute askotan alferrikakoa suerta daitekeela aurretiazko lan hori. Gainera, epaile batzuek ez dute begi onez ikusten abokatuen eta interpreteen arteko harremana, eta tentuz ibili behar izaten dute interpreteek horrelakoetan, lanerako materiala eskatzeko asmoa baino ez badute ere. Dena den, aurretiazko prestakuntza-lana nolabait bermatzeko, interpreteek aukera dute kasuko espedientea kontsultatu eta horren arabera beren materialak prestatzeko. Interprete bakoitzaren erabakia da informazio-iturri horiek kontsultatzea edo ez kontsultatzea, betiere kontuan hartuta beste faktore batzuek baldintzen dutela bere hautua: lan-kargak, denborak, zein arlotako epaiketa den (zigor arlokoa, lan arlokoa ...), kasuaren konplexutasunak edo inpaktu mediatikoak...

Hala ere, interesgarria da azpimarratzea ikusizko itzulpena egiteko kasu puntualen bat gertatu zaienean interpreteak izan direla abokatuari zuzendu eta idatzitako zerbait



irakurriko ote zuen galdetu diotenak. Zentzu horretan, justizia arloko interpreteek, beste bi arlokoetakoek bezalaxe, protokolo baten beharra nabari dute. Egon badago interpreteekin lan egiteko baldintzak zehazten dituen gomendio-sorta bat justizia-arloan, baina elkarrizketatuek esaten dutenaren arabera, interesatuek ez dituzte irakurtzen, eta are gutxiago aplikatu. Oraindik ere arazo asko izaten dituzte epaileekin, haietariko askok oraindik ez baitakite zein den eta zertan den interpretearen lana. Adibideren batzuk aipatzeagatik, epaile batzuek zutik izaten dituzte oraindik ere interpreteak, akusatu eta lekukoak interpreteen “bezeroak” dituztela uste dute eta hirugarren pertsonan hitz egitera derrigortzen dituzte itzultzerakoan. Horrelako egoeren aurrean egonda, argi dago urratzeko bide luzea dagoela oraindik justizia-arloan, beste herrialde garatu batzuetan aspaldi gainditutako egoerak baita horiek.

Egoera konplikatu horiek saihesteko, epaitegietako interpreteak abokatu, fiskal eta epaileei interpreteekin lan egiten irakasteko ikastaro edo mintegi batzuk antolatzearen alde daude, bereziki fakultateetan, horrela etorkizuneko profesionalei formakuntza egokia emateko. Hala ere, egoera larria da, oraindik ere beren interprete-lana errekonozitu gabe dagoela uste dutelako, eta baita askotan beren lan-baldintzak errespetatzen ez dira sentitzen dutelako ere.

Gauzak horrela, ezinbesteko deritzogu gai horretan sakontzeari, baina, zoritxarrez, gehiegi aldentzen da gure lanaren muintetik. Horregatik, ikerketarako beste bide hori ere zabalik utziko dugu etorkizunerako.

Funtzio komunikatiboarekin bukatu eta funtzio instrumentalarekin lotura ezartzeko, etorkizuneko interpreteen formakuntzarekin zerikusia duen galdera bat egin genien interprete guztiei: esango zenuke beharrezkoa dela unibertsitatean etorkizuneko euskal interpreteei ikusizko itzulpenean formakuntza espezifikoa ematea? Erantzuna aho batekoa izan zen: bai. Justizian ohikoa ez bada ere, konferentzietako eta instituzioetako interpreteen egunerokotasunean oso presente dagoen jarduera bat da, eta denek uste dute komenigarria dela etorkizuneko euskal interpreteek ahalik eta prestakuntza osoena jasotzea errealitateak planteatutako dizkien erronkei aurre egiteko.

## **IKUSIZKO ITZULPENA EUSKAL INTERPRETAZIOAN: FUNTZIO INSTRUMENTALA**

Jiménez Ivarsen eta Hurtado Albirren (2003) proposamenaren arabera, ikusizko itzulpenak funtzio instrumentala duenean ez du itzulpena helburu. Aldiz, kasu horretan, ikusizko itzulpena beste helburu bat lortzeko bitarteko bat baino ez da. Aipatutako helburu hori produktu bat lortzea (idatzizko itzulpena) edo zerbitzu pedagogiko bat ematea izan daiteke. Aipatutako lehen kasuan transferentzia-prozesuan erabilitako itzulpen-estrategia bat izango litzateke ikusizko itzulpena, hau da, behin betiko bertsioa lortzeko mekanismo bat. Garrantzitsua da azpimarratzea ikusizko itzulpena ez litzatekeela itzulpen-modalitate bat izango, itzulpen-estrategia bat baizik (Jiménez Ivars & Hurtado Albir 2003). Bigarren kasuan, berriz, irakasleek erabilitako pedagogia-estrategia bat izango litzateke, itzulpengintza- edo hizkuntza-didaktikaren markoetan aplikatutakoa.

Lan honetan gehien interesatzen zaigun aspektua etorkizuneko itzultzaile eta interpreteen formakuntzarekin zerikusia duena da, baina Auzmendirekin (1994) bat gatoz ikusizko itzulpena itzulpen-estrategia gisa erabiltzeari buruz esan zuenarekin:

[...] itzultzaile asko baliatzen dira metodo edo teknika honetaz beraien itzulpen lanak egiteko. [...] itzulpenaren irakaskuntzan ez d[a] inondik erabat alde batera uzteko metodoa, testuen ezaugarrien eta horien itzulpenaren erabileraren arabera uste baino askoz baliagarriagoa gerta daitekeelako. (Auzmendi 1994: 116)

Lanean dabilzan interpreteei elkarrizketak egin aurretik, ikusizko itzulpena etorkizuneko itzultzaile eta interpreteak trebatzeko bitartekari gisa erabiltzea garrantzitsua iruditzen zitzaigun; izan ere, oso jarduera berezia da, eskarmentua eta teknika ondo menderatzea eskatzen dituen. Argi dago denbora dela-eta ezin zaiola lauhilabeteko oso bat eskaini ikusizko itzulpenari graduiko ikasketetan, baina hainbat praktika-saio egiteari oso interesgarri generitzon.

Elkarrizketak egin eta gero, are konbentzituago gaude ikusizko itzulpena fakultateetan praktikatu beharraz, ez bakarrik graduiko ikasketetan, baita graduondokoetan ere, Arroyok eta Sevilak (1993) seinalatzen duten bezala. Berezi beharrezkoa dugu ikusizko itzulpenaren inguruko formakuntza gure hizkuntza konbinaketarekin (euskara-gaztelania), ikusi dugun bezala, konferentzietako eta instituzioetako arloan askotan tokatzen den interpretazio-modalitate bat delako.

Elkarrizketatu guztiak azaldu dira etorkizuneko interpreteen formakuntzan ikusizko itzulpena lantzearen alde, batez ere haietako oso gutxi jaso baitute formazio konkreturen bat. Lehen aipatu bezala, beharrezkoa eta egokia deritzogu euskara-gaztelania konbinaketan egin beharreko ikusizko itzulpenaren ezaugarri propioak bilduko dituen bibliografia zehatz bat garatzen hasteari.

Edonola ere, ez dugu ahaztu behar interprete bakoitzak bere beharretara egokitu beharko duela ikusizko itzulpenaren teknika, baina oinarrizko pauso batzuk ikastea oso lagungarri izan dakieke datozen interpreteei (Auzmendi 1994).

Eranskinean ikus daiteke teknika hori nola berenganatu duten hainbat interpretek. Modu autodidaktan (edo ia autodidaktan) ikasi badute ere, badituzte ezaugarri batzuk komunean, esaterako, aditzak markatzea, nolabaiteko gezi-sistema bat erabiltzea eta arazotsuak izan daitezkeen terminoen itzulpena orrian bertan apuntatzea.

II. eranskinean aurten Aldibereko Interpretazioa II ikasgaien landutako teknika ikus daiteke. Ikusizko itzulpena landu duten konferentzia-arloko interpreteek erabilitako sistema bera da. Sistematikoa da, zalantzarik gabe, eta zentzudun unitateka egindako segmentazioa du oinarri. Asko sinplifikatuz, honako hau litzateke euskara-gaztelania hizkuntza-konbinaketan ikusizko itzulpena egiteko teknika, sistema horren arabera: eskuinetik ezkerrera irakurtzea, zentzudun unitatez unitate. Asko sinplifikatzea da, sistema horrek ere baduelako beste arrisku bat: kalkoak eta itzulpen literalak. Ikasle gisa izandako esperientzian oinarrituta, segmentazio-teknika hori geureganatzeak lana asko errazten duela esango genuke, baina betiere kontziente izanik teknikarekin bakarrik ez dela nahikoa. Ezinbestekoa da teknika praktikatzea, zenbait automatismo garatuak izatea eta alde zuzeneko jakintza pasiboa aktibo bihurtzea. Oraindik ere irakasleak erakutsitako sistema hori bilduko duen bibliografiarik ez dagoenez, klaseetan erabilitako materiala irakasleak berak prestatutakoa izan da.

Laburbilduz, ikusizko itzulpena egiteko oinarrizko teknika Itzulpengintza eta Interpretazioko Graduan lantzeari beharrezkoa deritzogu, lan-munduan sarritan egin beharreko lana delako, eta baita horren inguruko bibliografia zehatza garatzeari ere, horrela praktikaz gain marko teoriko sendo bat eskaintzeko etorkizuneko interpreteei.

## ONDORIOAK

Behin ikusizko itzulpena zer den azalduta, ikusizko itzulpenaren funtzio komunikatibo eta instrumentalak definituta eta gure errealitatean zer nolako presentzia duten aztertuta, ondorioak ateratzeko momentua iritsi da. Berriro ere, argi utzi nahiko genuke ondorio hauek lagin txiki batekin egindako ikerketa-lantxo baten emaitza direla, eta, beraz, ikerketa sakonagoa eta lagin handiagoa beharko lirartekeela behin betiko ondorio sendoak aurkezteko.

Lehenik eta behin galderen erantzunetatik ateratako ondorioak aurkeztea erabaki dugu, galderen ordena berean, eta jarraian helduko diegu galderetatik haratago ondorioztatukoei. Honako hauek dira galdetegiaren erantzunetik ateratako konklusioak:

1. Ikusizko itzulpena sarritan erabiltzen da konferentzia-arloan eta arlo instituzionalean (egindako interpretazioen %50ean baino gehiagotan, batz bestea) Nafarroako Parlamentuan izan ezik, non oso gutxitan egin behar izaten duten testuak aurretiaz lortu eta itzulpen osoak egiten dituztelako. Arlo judizialean, oster, ez dute ia inoiz ikusizko itzulpenik egiten, epaiketen nolakotasunak ez baitu horretarako tokirik uzten.
2. Egoera ez da aldatu duela urte batzuetatik ona. Ikusizko itzulpen asko egiten zuten konferentzietako eta instituzioetako interpreteek oraindik ere egiten dute, eta arlo judizialean ez dute inoiz ikusizko itzulpenik egiteko behar handirik izan.
3. Begi-bistako arrazoiengatik arlo judiziala albo batera utzita, arlo instituzionaletan ez dituzte beti testuak aurretiaz jasotzen, eta jasota ere, testuak interpreteei azken hamar minutuetan emateko joera dago. Nafarroako Parlamentua da berriro ere salbuespen. Gainera, interpreteak izaten dira testu-eskean ibili behar direnak, eta oraindik “didaktika” lan handia egin behar izaten dute. Konferentzietako interpreteak hobeto daude zentzu horretan. Salbuespenak salbuespen, normalean aurreko egunean edo pare bat egun lehenago jasotzen dituzte testuak, eta askotan enpresa-bitartekariak lortzen du materiala. Dena den, hizlarien atzetik ibiltzea interprete guztien egunerokotasunean presente dago.

4. Materialak aurretiaz jasota ere, konferentzietako interpreteek ikusizko itzulpeneko prestatzen dituzte normalean testuak, osorik itzuli gabe. Instituzioetako interpreteen kasuan, berriz, denbora nahikoz jasotzen dituztenean testuak, osorik itzultzen dituzte. Denborarik ez badute, interprete bakoitzak ikusizko itzulpena prestatzeko bere teknika propioa garatu du. Bi arloetakoez markatzen dituzte aditzak, korapilatsuak izan daitezkeen terminoak eta sintaxi konplikatuak gaztelaniaz ondo emateko beharrezkoak diren ordena-aldaketak, gehienetan gezen bidez. Segmentazioari dagokionez, askotan edukia araberan banatzen dute testua, zentzudun unitatekara egin beharrean. Konferentzietako bi interpreteek ikusizko itzulpeneko teknika landu dute eta horiek zentzudun unitatekara segmentazio sistematikoa egiten dute, gero atzeko aurrera irakurtzeko. Esandako guztia gorabehera, ezin dugu aipatu gabe utzi interprete batzuek nahiago izaten dutela testuari uko egin eta ahozko jardunetik zuzenean itzuli, horrek dakartzan arrisku guztiekin.
5. Konferentzietako bi interpreteen kasuan izan ezik, testuak prestatzeko gainontzeko teknika horiek modu autodidaktan garatutakoak dira, beharrak eta esperientziak bultzatuta, apurka-apurka diseinatu eta findutakoak. Elkarriketatu gehienek ez dute ikusizko itzulpeneko formakuntza konkreturik jaso, eta ikastaroren batean aipatu bazitzaie ere, ez dute espezifikoki gehiago landu. Konferentzia-arloko interprete gazteenek, formakuntza espezifikoa jaso dutenek, hain zuzen, hiru erreferentzia bibliografiko eman dituzte ikusizko itzulpenaren inguruan: *Interpretation techniques* (Jamen Nolan), *Conference interpreting* (Andrew Gillies) eta *Interpreter behaviour* (Ildikó Horváth). Besteek ez dute ikusizko itzulpenari buruzko bibliografiarik ezagutzen, baina batek baino gehiago erakutsi du horren inguruan miazten hasteko interesa.
6. Interprete guztiek adierazi dute protokolo bat ezartzeko beharra. Dena den, protokolo horrek arlo bakoitzeko ezaugarri eta beharretara moldatu beharko luke. Konferentzien kasuan, antolatzaile eta enpresa bitartekariak zuzendu beharko litzaieke hizlariak baino gehiago. Arlo instituzionalean justu kontrakoa gertatzen da: hizlariak jaso behar lukete protokolo horren berri eta testuak aurretiaz jarri interpreteen eskutetan. Azkenik, epaitegietako protokoloak zerikusirik handiagoa izan beharko luke interpreteen lan-baldintzak errespetaraztearekin

ikusizko itzulpenarekin baino, oso gutxitan egin behar izaten baitute interpretazio-modalitate hori.

7. Interprete guztiek uste dute (justiziakoak barne) ikusizko itzulpena interpreteen formakuntzan erakutsi beharreko jarduera bat dela; alde batetik, gure errealitatean oso presente dagoen zerbait delako eta, bestetik, interprete profesional osoagoak lortzeko bidea delako. Hala ere, guztiek azpimarratu nahi izan dute oratoria landu beharra oso argi ikusten dutela beren eguneroko lanean, orokorrean gure hezkuntza-sistemak ez gaituelako jendaurrean hitz egiteko egoki prestatzen.
8. Euskara-gaztelania konbinaketako ikusizko itzulpenaren oinarrian euskarazko testu idatzi bat dago. Aurretiaz idatzitako diskurtsoak irakurtzeko joeraren kausatzat hainbat arrazoi posible aipatu dituzte elkarrizketatuek: hitzak neurtu beharra, hizkuntza-gaitasuna, ziurgabetasuna, denbora, diskurtso konplexu eta osoak eman nahia eta “diskurtso perfektuaren” ideia faltsua.
9. Elkarrizketatuek orokorrean ezin dute testuak irakurtzen dituzten hizlarien tipologiarik ezarri, izan ere, gehiago lotzen dute faktore pertsonalekin taldekatu daitezkeen faktore komunekin baino. Hala ere, konferentzia arlokoek hiru hizlari mota identifikatu dituzte: jendaurrean hitz egitera ohituta ez daudenak, politikariak eta unibertsitate-irakasleak. Zehaztu behar da diskurtso konplexu eta osoak eman nahi dituzten hizlariak (unibertsitate-irakasleak eta adituek) normalean hobeto irakurtzen dituztela testuak abiadurari, ahotsaren modulazioari eta enfasiari dagokienez, eta, beraz, interpreteen lana askoz errazagoa dela kasu horietan. Dena den, ezinbestekoa da hezkuntza-sisteman jendaurrean hitz egiteko gaitasuna lantzen hastea, izan ere, badirudi egoera ez dela gehiegi aldatu 1990etik 2017ra bitartean.

Behin galdera-ondorio guztiak banan-banan aztertuta, ondorio orokorrak azaltzeari ekingo diogu:

1. Euskal gizartean interpretazioaren kultura falta da oraindik ere, nahiz eta gurea gizarte elebiduna izan. Ulergarriagoa litzateke gizarte elebarkarrea, baina hori da gure errealitatea: interpretazioaren kultura ez dago behar beste zabalduta, eta hizlariak gehienek ez dakite oso ondo zer den, ezta publiko orokorrak ere. Beste gizarte elebidun batzuen ereduak jarrai geniezaieke interpretazioaren kultura hedatzeko.
2. Ezjakintasun hori izan liteke interpreteen lan-baldintzak ez errespetatzearen kausetako bat, beraz, interpreteen lan-egoera hobetzeko ezinbestekoa da beren lanbidea ezagutzera ematea. Ez hori bakarrik, beren lanaren kalitatea ahalik eta gehien bermatzeko modu bat ere bada.
3. Gustatu ala ez gustatu, gure gizartea elebiduna eta heterogeneoa da, eta euskararen eta gaztelaniaren erabilera arlo publiko zein pribatuetan uztartzeko modu naturala aurkitu beharko dugu. Horregatik, egungo eta etorkizuneko interpreteen lanak zeresan handia izango du euskararen erabateko normalizazioan. Atera ditzagun, hortaz, interpreteak ilunpetatik.

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- ARROYO, A. & SEVILLA, J. (1993). “La traducción a la vista (francés-español)”. In *Sendebarr*, 4, 253-261.
- AUZMENDI, L. & TAPIA, K. (1990). “Euskal interpretaritzaren errealitate mingotsa”. In *Senez*, 9, 25-33.
- AUZMENDI, L. (1994). “Interpretaritzaren didaktika”. In *Senez*, 15, 111-121.
- BAIGORRI, J. (2000). *La interpretación de conferencias: el nacimiento de una profesión. De París a Nuremberg*. Granada: Comares.
- CONTRERAS, H. (1998). *El orden de palabras en español*. Madrid: Cátedra.
- CURVERS, P., KLEIN, J., RIVAS, N. & WUILMART, C. (1986). “La traduction à vue comme exercice préparatoire et complémentaire à l’interprétation de conférence”. In *Cuadernos de Traducción e Interpretación*, 7, 97-116.
- FERNÁNDEZ SORIANO, O. (1993). “Sobre el orden de las palabras en español”. In *Dicenda. Cuadernos de filología hispánica*, 11, 113-152.
- HURTADO, A. (1995). “Modalidades y tipos de traducción”. In *Vasos comunicantes*, 4, 19-27.
- JIMÉNEZ, A. & HURTADO, A. (2003). “Variedades de traducción a la vista. Definición y clasificación”. In *Trans. Revista de Traducción*, 7, 47-58.
- TROVATO, G. (2012). “La traducción a la vista como ejercicio propedéutico a la interpretación bilateral: un estudio comparativo entre español e italiano”. In *Tonos Digital*, 23, 2016ko azaroaren 9an hartua honako webgune honetatik: <http://www.um.es/tonosdigital/znum23/secciones/estudios-34-trovatotraduccion.htm>
- ZUBIZARRETA, M. L. (1999). “Las funciones informativas: tema y foco”. In BOSQUE, I. & DEMONTE, V. (ed.), *Gramática descriptiva de la lengua española*. Madrid: Real Academia Española eta Espasa Calpe, 3, 4215-4244.



## **ERANSKINAK**

### **I. ERANSKINA: GALDETEGIA**

1. Egin behar izaten duzu idatzitako testu baten aldibereko itzulpenik?
2. Egoera aldatu al da aldibereko interpretazioan lanean hasi zinenetik hona?
3. Aldez aurretik jasotzen dituzu testuak normalean? Zenbat denbora lehenago?
4. Izaten duzu testuak prestatzeko aukerarik edo denborarik? Zenbat denbora? Erantzuna baiezkoa bada, zein teknika erabiltzen duzu?
5. Teknika hori modu autodidaktan garatutakoa da edo jaso duzu ikusizko itzulpenean formakuntza espezifikoren bat? Ezagutzen al duzu interpretazio mota berezi horri buruzko bibliografiarik? Zein?
6. Esango zenuke beharrezkoa dela protokolo bat ezartzea?
7. Esango zenuke beharrezkoa dela unibertsitatean etorkizuneko euskal interpreteei ikusizko itzulpenean formakuntza espezifikoa ematea?
8. Zergatik uste duzu euskarazko hitzaldi inprobisatuak eman beharrean testuak irakurtzeko tendentzia gero eta nabarmenagoa dela?
9. Posible zenuke testu idatziak irakurtzen dituzten hizlarien tipologiarik edo nolabaiteko azalpenik ematea? (Politikarien kasuan, adibidez, hasi berriak/esperientziadunak; hitzaldien kasuan, akademikoak, erakundeetako ordezkariak...)

## II. ERANSKINA: EREDUA I (FAKULTATEAN IRAKATSITAKOA)

Sr Zurro

esk + onr, 28/1



### BILBAO EGUNKARIA

Zer esan nahi dau/Bilbao aldizkariak euskarazko edukiak bermatzen jarrai dezala, eta apurka apurka handituz joan dadila" zuen emendakinak dioen esaldiak?/Zer nolako euskararekiko konpromezua/jasotzen dau honek?  
*kontinua garrantzua e inereu. grad te*

Aurreko asteburuko iritzi artikuluan batean/gure euskara zinegotziak/esaten eban/gakoa berezko hizkuntzaren eta hizkuntza partekatuen arteko harreman orekatuan zetzan/Azkeneko Bilbao aldizkariaren datu batzuk konpartitu gura deusuedaz/ea horrela "harreman orekatua" zer den azaltzen deuskuzuen?  
*conco proposario emendatua*

Aldizkariaren 44 orrietatik/35 dira erdara hutsean/7 elebitan/eta honetan/eskuzabala izango naiz/zeren hitz edo berri bakar bat egotearekin/elebitan egoala ontzat emon deusaf/2, bi baino ez euskara hutsean//

Pergola gehigarrian/20tik 15 erdara hutsean/2 elebitan//Eta 3 euskara hutsean/hoietako bat portada dena/  
*suplem.*

Arzakas  
Ez  
Calle  
Batas

Abenduaren 2ko bozeramaileen batzordean/hitz potoloz beteriko testu bi sinatu genduzan talde politiko guztiok/EHBildutik/gureak eta bi irentsi genituen/akordioaren mesederako/gure hirian euskarak behar duen bultzada eta konpromezua indartua aterai daien.  
*grandes palestras*

Adierazpenak sinatzean/horrelako gauzak ontzat]eman genduzan talde guztiok/

- "konpromisoak hartzen doguz/euskararen erabileraren normalizazioan urratsak emoten jarraitzeko";
- "aukera berriak irekiko doguzela/euskara erabiltzeko/eta horretarako/errespetatuko dituela/pertsona guztien hizkuntza-eskubideak/eta euskararekin bat egiteko askatasuna";
- "neurri malguak eta politika sendoak eta egokiak bultzatuko doguz/euskara inartzeko asmoz/beti ere gure bi hizkuntza ofizialen arteko oreka gero eta handiagoa bilatuko duen elebitasunaren ildotik."  
*flex*  
*siempre de un d'us. q. busque un equilibrio entre ...*  
*for-teleca*

Aurtengo otsailaren 18/Bilbao Aldizkariaren Erredakzio kontseiluko bilera izan genuen/Bertan azaldu genituen/euskarak eban presentzia eskasarengatik kezka/Aldizkariaren zuzendaria den Puccini andereak hainbat aitzakiak jarri zituen/nahiz eta esan/saiatu saiatuko zirela/urtean zehar euskararen presentzia handitzen/Gure elkarlana eskaini geneutson/euskarazko artikulua lortzen, egiten edo idazten/Baina eskaintzari uko egin zion/Otsailetik hona itxaron dogu, ezer esan barik/eta ez da inolako aldaketarik egon//

EHBildutik/hitzetik ekintzetara pasatzeko une heldu dela uste dogu/eta gure proposamena oso zehatza da/zehatza eta zentzuduna/Eskatzen dogunetik zer ez da onargarri?/Zer ezin da ontzat eman?/Zergatik ez dozue Udalarena den aldizkarian zuek diozuen harreman orekatua horrantz joan?/Zein da oraingoan arazoa?

### 2/3. interbetzioa

Zuen jarrera horrekin/ezerrean uzten dozue/aurreko asteak akordioa/Aste bat pasatu da/eta jada ezerk ez dau balio/Zer nahi zenuten ba/ argazkia aterai eta hurrengo egunean ahaztu/Euskarak

2/16

2 hitz de

20070/impulso

guztion bultzadak behar badu, guztionak esan nahi du // Zer egiteko prest zauzie? // Zein da alderdi bakoitzaren konpromezua? // PNVren aldetik argi geratu zaigu / azkeneko 4 urtetan euskarari esleitu jakon aurrekontua ikusita // Oso argi geratu da // Non dago ESEP berria? // Zer baliabideak eskainiko dozue? // hitz potoloak egi bihurtzeko? // Badakigu / euskara ez dela / inoiz izan / lehentasunezko gaia zuentzat / baina behintzat / aurpegia emon eta zintzoak izan / horrela ez dogu zuekin denpora alperrik galduko // *konpromiso*

Eta PP eta PSOE / hainbatetan euskara aldarrikatu / eta oraindik agur, egunon, edo eskerrik asko baino ez deusueguz entzun // Noizko proposamenak elebitan egin? // Noizko keinu bat gure hizkuntzarekiko? // Euskara, egiten duenarena da / berdin deitso non jaitza den / non bizi den // Euskara duena, euskalduna da // Ez dakigu zuek euskara dozuen ala ez // inoiz ez baizaituztegu ezer leidu ala entzun / hizkuntza horretan // Euskara zuena da bai / arabiera, quechua, latina edo mandarina den bezala uste dogu //

Gauzak horrela / gezur hutsa den akordio batean ez doguz *parte* parte hartu nahi / aurreko asteko euskararen aldeko akordiotik jeisten gara // Ez kontatu gurekin horrelako iruzur batean / Bilbon, Euskararen aldeko benetako pausuak emoteko prest egotean, gure taldeko atak / erabat zabalik dozue // Eta jakin, badakizue // Eta erakutsi, erakutsi dogu. *parte*

*cosas buenas demostradas*

*Cuando estan ustedes*

### III. ERANSKINA: EREDUA II

**Zein dira hezkuntza sistemaren egoera hobetzeko dituzun egitasmoak? (Ubera Aranzeta, Rebeka, EH Bildu)**

Legebiltzar presidente anderea, Lehendakaria, sailburuok, legebiltzarkideok. Egun on.

Ubera anderea, .....

Tal p como

Duela gutxi Hezkuntza Batzordearen aurrean, nik zuzentzen dudan sailaren ildo estrategikoak azaltzeko egin nuen agerraldian azaldu nuen legez, gure jarduera GUZTIAREN helburu nagusia, gure hezkuntza sistema hobetzea da. Ezin liteke bestela izan.

Jarduera hori guztia, orain dela astebete, joan zen otsailaren 24an zehazki, Lehendakariak xehetasun osoz aurkeztu zuen "Euskadi 2020 giza garapen jasangarria" strategiaren barnean kokatzen da, legealdi honetarako Gobernu Programaren baitan. Bere ardatz estrategikoen artean, gure hezkuntza sistema hobetzea ez ezik, bikaintasuna ere bilatzen du programa honek. Hitzez hitz, honela dio: "Bikaintasunezko hezkuntza, oreka soziala bermatzeko".

Gobernu Programa honen 1 ildo 1 estrategikoak lehen aipatu dudan agerraldian aurreratu 2 genituen. Eta 1 aste honetan bertan aurkeztu dugu, herenegun, honi eusten dion aurtengo aurrekontua.

Baina zure ardura eta galdetu behar hori ikusita, berriro azalduko dugu.

*Hay que destacar*<sup>1</sup>  
Hasiere-hasieratik nabarmendu beharrekoa da, Hezkuntza<sup>2</sup> dela gizarte oso baten eta herritarren banakako aurrerapenaren faktore nagusia<sup>3</sup>. Funtsezko elementua da aukera-berdintasuna sustatzeko<sup>2</sup> eta bizikidetzatza demokratikoa, solidarioa eta erantzulea eraikitze<sup>3</sup>.

Hezkuntzaren ikuspuntu integral batetik, guk ere uste dugu euskal hezkuntza-sistemaren kalitatean aurrera egiteko premia dagoela, eta, hori lortzeko, sustatu behar direla zuzentasuna, gizarte-kohesioa, balioen hezkuntza, aniztasunarekiko errespetua eta pentsamendu zein sinesmen askatasuna, baita giza-eskubideak eta aniztasunaren defentsa ere. Gure helburua da Euskadiko eskola-porrota %8koa baino txikiagoa izatea.

*proceso*  
Helburu horrekin, 21. mendeko euskal herritarrei egokitutako hezkuntza-eredu integrala sustatu nahi dugu.

Eredu horretan, kultura zientifikoa eta humanitateak konbinatuko dira, bizitza osorako ikaskuntzarekin osatuta, eta errealitatearen ikuspegi kritikoa eta eraldatzailea emango zaie ikasleei.

*Dicho modelo se besorá*  
Adostutako Hezkuntza Lege berri integratzaile batean oinarrituko da eredu hori, eta etengabe aldatzen ari den gizarte baten eskaerari eta premia berriei erantzungo die.

*responsable*

1  
reto

Hezkuntza erronka bat da, erronka kolektiboa, eta gizartearen zein pertsonen aurrerabiderako faktore nagusia 2 ere bada. Gobernu honek hezkuntzaren alde egiten duen apustua garbia da. Hezkuntza <sup>Tal. 7 comp</sup> Saialaren ildo estrategikoak aurkezterakoan aurreratu nuen bezala, eta joan zen astean Legebiltzar honi aurkeztu zitzaion Gobernu Programan jasotzen den bezala, honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Hezkuntza Ituna <sup>impulso</sup> bultzatzea, Hezkuntzaren Euskal Lege berri bat sortzeko Arastar 2017
- Eskola inklusiboaren, ekitatiboaren eta berritzailearen alde egitea, bikaintasunerantz aurrera egiteko Conseguir
- Oreka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetzat handiagoa lortzea gure ikastetxeetan
- Eleaniztasuna bultzatzea eskolan <sup>Impulso</sup> Garantzar igualdad en acceso
- Hezkuntza-sisteman sartzean berdintasuna bermatzea
- Irakasleen eginkizuna <sup>Potencial de personas</sup> sustatzea, Hezkuntzaren hobekuntzaren eta aldaketaren eragile nagusiak diren Comu aldetik Crear, renovar y adecuar
- Hezkuntza-azpiegiturak sortu, berri eta egokitzea
- Irakaskuntzaren modernizazio teknologikoa bultzatzea

Gainera, konpromiso hauek ere hartzen ditugu:

- Bikaintasunezko Lanbide Heziketan lidergoari manten eustea
- Berrikuntza Aplikatua eta Ekintzaitza apoyar babestea, Lanbide Heziketako ikastetxeetan
- Lanbide Heziketako euskal ereduaren nazioartekotzea

continuar apoyando

bultzatzen jarraitzea *elaborar*

- Lanbide Heziketako V. Euskal Plana egitea *arantzer*
- Euskarazko prestakuntza-zikloak ezartzen aurrera *continuar*  
egitea eta Lanbide Heziketan eleaniztasuna bultzatzen jarraitzea *cont el objetivo de*

Era berean, Unibertsitatean Bikaintasuna, espezializazioa eta nazioartekotzea bultzatzeko helburuz, hauek dira konpromisoak:

- Unibertsitate-mailako oinarrizko politika zientifikoa eta ikertzailea garatzea eta talentua sustatzea, bikaintasunaren bila *desarrollar... e impulsar*
- Euskal unibertsitate-sistema garatzen jarraitzea, emaitzetara bideratutako kudeaketaz eta inguru global berrira egokitzeko gaitasunaz, euskal gizartearen etorkizuneko erronkei erantzuteko *continuar*
- Euskal Unibertsitate Sistemaren nazioartekotzearen alde egitea *continuar*
- Beken politika indartzea ikertzaileen karreran *impulsar*
- Unibertsitate eta enpresen arteko programak sustatzea *impulsar*

*Unos = estratégicos*  
18 konpromiso, 18 ildo estrategiko, eta konpromiso horiei guztiei loturik, *desarrollaremos una larga serie* ekimen eta ekintza andana garatuko da.

Publikoak dira ekimen eta ekintza konkretu horiek, eta lehen esan dizuedan bezala, *están reconocido* Gobernu Programan dituzue eskura.

#### IV. ERANSKINA: EREDUA III

Pero, además se han convocado sendas Mesas de Planificación, en las que en alguna ocasión y algunos sindicatos han optado por no asistir.

Benetan diot: gure borondatea negoziazioaren aldekoa da, akordioaren aldekoa. Baina horretarako beharrezkoa da mahaian eseri eta proposamenak egitea, greba deialdietatik harago doazen proposamenak.

*Asumimos*  
Erantzukizuna daukagu, eta benetan sinesten dugu eragile sindikalekin negoziazioa beharrezkoa dela, baina aldi berean, uste dugu zintzo jokatu behar dugula, eta oinak errealitatean ditugula lan egin.

Agerikoa da funtzionario publiko guztiek eta gizarte honetako gehiengoak krisi ekonomiko sakon baten laztasuna pairatu dugula, eta pairatzen ari garela oraindik.

Eta horrek, ondorioz, gure eroste-ahalmenean ere eragina izan du. Baina irakasleen eremura itzulita, saihestezina gertatzen da ikustea euskal irakasleen lan-baldintzak, objetiboki, Espainiako estatukoena baino hobeak direla, eta ez bakarrik soldatei dagokienez. Gure gizarteko gainerako langileekin alderatu ezker... benetan egin ote dute okerrera gure irakasleen baldintzek? Realmente las condiciones de nuestro profesorado se han visto desmejoradas, en comparación con el resto de nuestra sociedad?



## V. ERANSKINA: EREDUA IV

### Helburu/nagusiak/Landa Garapena eta Nekazaritza

- Lehen/ sektoreko/ enpresen/ lehiakortasuna areagotzea
- Belaunaldi/aldaketa bultzatzea
- <sup>Adecuar</sup> Landa Garapeneko Programa/ 2015-2020/ sektorearen errealitate sozioekonomikora egokitzea
- Sektorearen egituraketa bultzatzea
- Erakunde arteko elkarlana eta koordinazioa areagotzea
- Administrazioaren efizientzia areagotzea/ eta burokrazia gutxitzea/ araudien arrazionalizazioa
- Komunikazio ekintzak/ Landa eremuko produktu eta zerbitzuen balorizazioa eta gizarteratzea

3

### Helburu/nagusiak/Landa Garapena eta Nekazaritza

- Lehen/ sektoreko/ enpresen/ lehiakortasuna areagotzea
- Belaunaldi/aldaketa bultzatzea
- <sup>Adecuar</sup> Landa Garapeneko Programa/ 2015-2020/ sektorearen errealitate sozioekonomikora egokitzea
- Sektorearen egituraketa bultzatzea
- Erakunde arteko elkarlana eta koordinazioa areagotzea
- Administrazioaren efizientzia areagotzea/ eta burokrazia gutxitzea/ araudien arrazionalizazioa
- Komunikazio ekintzak/ Landa eremuko produktu eta zerbitzuen balorizazioa eta gizarteratzea

3

## VI. ERANSKINA: EREDUA V



2017-02-27 Berdintasun Puntua

### 2016KO JARRAIPENAREN LABURPENA. MIREN BATZAR NAGUSIETAN 2017-02-27

2016an egin diren lanak laburtzeko, hiru esparru aipatu beharko genituzke. Lehendabizikoa, urteroko ohiko lana. Beste biak, berriak, urtero egiten ez diren horietakoak, denbora eta lan handia eskatzen duten horietakoak:

1.- Foru departamentuek 2016rako programatutako ekintzen jarraipena. Urtero egiten den datu bilketa eta azterketa (kuantitatiboa eta kualitatiboa).

2.- 2013-2016 fasearen amaiera. Lau urteetan egindako lanaren azterketa eta hurrengo lau urteetarako proiektzioa.

3.- 2017-2020 fase berriaren prestaketa. Foru plan berriak prestatu, bigarren planaren egokitzapena egin eta kudeaketa sistema berria martxan jarri.

#### 1.- DEPARTAMENTUEK 2016RAKO PROGRAMATUTAKO NEURRIEN JARRAIPENA

Berdintasunerako II Foru Planak 223 neurri ditu 2012-2020 epean garatzeko.

2016rako departamentuek 102 neurri programatu ziren (Berdintasunerako II Foru Planaren %46a). 102 neurri hauek aurreko urteetan eré garatutako neurriak ziren, 2013-2016 fasearen amaieran eta 2017-2020 fasea ekin aurretik, bakondu nahi izan diren neurriak, hain zuzen ere.

Programatutako 102 neurri horietatik, jaso ahal izan diren datuek arabera, 67 garatu ziren (%66), gutxi gorabehera 2015ean bezala.

- Sei departamentuen jarraipen datu guztiak jaso ahal izan dira. Beste baten datu erdiak (Gizarte Politika), beste baten %13a (Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirolak) eta beste baten ezin izan dira jaso (Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa). → Ditugun datuak baina ekintza gehiago garatu dira.



- 2015ean programatutako %65 garatu ziren, 2014an %75 garatu ziren eta 2013an %77 → Lehen urtetan eta <sup>edo.</sup> "dena" hasteko zegoenean, "hasiera fasean" +/- %75. "Sakontze fasean", +/- %65.  
↳ profundetze.

### 1.1.- Ildo estrategikoka:

De  
Sei ildo estrategikoetatik, bitan 2016an programatutakoaren %80 baino gehiago garatu da ("Gobernu Ona" eta "Ingurune Iraunkorra") eta beste hirutan %50 baino gehiago garatu da (Bizitzaren iraunkortasunerako ekonomia, "Indarkeri matxistarik gabeko bizitzak") eta "Emakume-sareak eta jardun feministak, azken honek %45).  
*Eutorno Sostekibile*  
*Econ. p.ez la sostenibil. de la vida*  
*Redes de mujeres prácticas feminis*

### 1.2.- Departamentuka:

Berdintasunerako Organoa izan da <sup>el 9.</sup> ekintza kopuru handiena garatu duena (53 ekintza), programatu zuenaren %76a. Egoera hau organo honek Emakume eta gizonen Berdintasunerako II Foru Planaren sustapenean nahiz garapenean jokatzeko duen paperarekin lotuta dago.

Bigarren tokian, Gizarte Politika Departamentua dago (22 ekintza) eta hirugarren tokian, Ogasuna eta Finantzak (10 ekintza), programatu zuenaren %77a. Gainontzeko departamentuei neurri gutxiago dagokie <sup>en</sup> berdintasunerako bigarren planean.

## 2.- 2013-2016 FASEAREN AMAIERA: GARATUTAKO NEURRIEN SAKONTZEA

<sup>9.</sup> 2016 urtea, aurreko urteetan garatzen hasita ~~10~~ neurriak sakontzeko urtea izan dela esan daiteke. Horregatik, neurri berriei ekin beharrean, martxan zeudenak gehiago eta hobeto garatzeari ekin zaio. Esaterako, eta adibide modura, berdintasunerako klausulen erabilerari.

### 2.1.- Berdintasunerako II Foru Planaren betetze maila:



Berdintasunerako II Foru Planak 2012-2020 epean garatzeko zituen 223 neurrietatik, 2013-2016 urteetan, 152 neurri programatu dira. Hau da, planaren %68a.

Programatu diren 152 neurri horietatik, 129 neurri garatu dira. Hau da, plana garatzeko denboraren erdian, planaren %58a garatu da. Lehen bi urtetan beraien garapena hasiz eta azken bi urtetan beraien garapena sakonduz.

## 2.2.- Berdintasunerako klausulen 2013-2016 erabilera:

Departamentuen urteroko programazioek foru kontratazioan eta diru-laguntzetan berdintasunerako klausulen erabilera izan duten eragina izan daiteke aipatu dugun urtez urteroko neurrien sakontze prozesuaren adibidea:

- Kontratuetan, 2013an 71 kontratuetan txertatu ziren klausulak eta 2016an 172 kontratuetan. Hazkundera %242koa izan da.
- Diru-laguntzetan, 2013an 22 diru-laguntza deialdietan txertatu ziren klausulak eta 2016an 102 diru-laguntzetan. Hazkundera %463koa izan da.

Beraz, berdintasunerako klausulen erabilera guztiz orokortzea lortu dela esan daiteke. Hala ere, hau ez dela nahikoa jakinda, hurrengo erronkak, klausula horien jarraipena hobetzea eta berdintasunaren aldeko bere eragina neurtu eta handitzea dira.

## 3.- 2017-2020 FASE BERRIAREN PRESTAKETA

Horretaz gain, 2017-2020 fasea prestatzeari ere ekin zaio 2016an, bai edukien aldetik eta bai kudeatzeko moduaren aldetik pausu garrantzitsuak emanez.

### 3.1.- Edukien aldetik, hiru foru plan bat eginik:

2017-2019 berdintasunerako fase berriak izango dituen hiru zutabeak prestatu dira 2016an:



- “AURRE!” Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako foru plan berria prestatu eta onartu da 2016an, jadanik martxa dagoelarik.
- Erantzunkidetasuna eta kontziliazioaren aldeko foru plan berria ere aurreratu egin da 2016an, une honetan idazten eta kontrastatzen ari delarik.
- II Foru Planaren neurrietatik garatu gabe geratu diren neurriak, departamentuek aztertu eta eguneratu dituzte. Gero, hori egokia den kasuetan, bi foru plan berrietan txertatu dira eta, hori egokia ez denean, berrantolatu eta berridatzi egin dira, foru plan berriekin berdintasunerako plangintza bakar bat egin ahal izateko.

Une honetan, hiru foru plan berri hauek bat egiteko sintesia prestatzen ari da. Gero departamentuka landuko da, 2017-2020 tarterako urtez urteko lan plangintza egingo delarik.

### 3.2.- Kudeaketaren aldetik, programaziorako eta jarraipenerako foru tresna komun bakarra:

Paraleloki, une honetan GFAk arlo eta programa guztien kudeaketarako garatzen ari den EBA (programazioak egiteko) eta MIDENET (jarraipena egiteko) lan tresnak ere 2016an landu dira. Berdintasunerako Organoak bigarren foru planaren eta bi foru plan berrien atal, helburu eta ekintza guztiak jasotzeko modua proposatu du, berdintasunaren zeharkakotasuna bermatuz.

Bestalde, fase berrian berdintasunerako politiketako kudeaketa EBA eta MIDENET lan tresnen bitartez kudeatu ahal izateko, beharrezko epe eta lan moldaketak ere 2016an hasi dira egiten.

*Daboz.*  
Esandakoaren zehaztasun guztiak orain egiten ari den 2016ko Jarraipen Txostenean jasoko direnez, laster bertan ikusi ahal izango dira.

los trabajos y las pletas y las edificaciones de los platos y las políticas de igualdad a través de las políticas de igualdad de EBA y MIDENET  
Por otro lado, se han iniciado el año 2016 las edificaciones de los platos y las políticas de igualdad a través de las políticas de igualdad de EBA y MIDENET  
necesarios para poder gestionar en la nueva fase las herramientas de trabajo EBA y MIDENET

## VII. ERANSKINA : EREDUA VI



- abeltzainek natur ingurunearen zaintzan jokatzeko duten papera aitortu eta bultzatzea, horixe delako mendiko larreen habitat babestua epe luzera zaindu eta babesteko modurik eraginkorrena.

- mankomunitatea osatzen duten herriek ezarritako lehentasun eta identifikatutako beharrak errespetatzea eta betetzen saiatzea, indarrean dagoen legedia errespetatuz.

Bi oinarri horietatik abiatuz, Gipuzkoako Foru Aldundiak Enirio-Aralarreko mankomunitatera bideratutako 2015-2019 kudeaketa plana osatzeko, mota honetako plangintzekin jarraitzen den pareko metodologia jarraitu du.

Hasteko, planaren helburua zehaztu zen. Honako hau: "Mankomunitateak identifikatu eta onartutako beharrak egikaritzen laguntzea legealdian zehar, horretarako beharrezkoak diren baliabide tekniko eta ekonomikoak bideratuz. Guzti hori, gainera, ordenamendu plan eta gainerako araudiak eskatzen dituzten baldintzak beteaz egiten dela bermatuz".

Behin helburua argi izanik, plana osatzeko beharrezko elementuak osatzeari ekin zitzaion.

- Mankomunitateko beharrak jasotzea.

- Lehentasunak jarri aurrekontu aukeren arabera. Inbertsioak partida desberdinetatik burutuko dira, orain arte bezela: adibidez, Mendiko



Gazta egiteko txabolak berritzea Landaola Federazioaren bidez ordaintzen da zati batean eta beste zatia Mendi Zuzendaritzatik.

- Lehentasun horiek Aralarko kudeaketa egoki batekin bat datozen kontrastea egin: horretarako GFAREN barne informazioaz baliatuz (Ustialeku Erregistro informazioa, Landa Garapen Programa Iraunkorra, ....) eta beharrezko kontraste teknikoak eginez bai GFAko teknikarien bidez baita ere sektoreko beste erakunde eta eragile desberdinen bidez (sektoreko elkarte, sindikatu, udal, ...)
- Parke Natural eta Kontserbazio Bereziko Eremu izanik, beraien araudi eta irizpideak aztertu eta kontuan hartu, bai ezartzen dituzten mugei dagokienez baina baita ere izendapen hauek beraien dakartzaten helburu eta aukerak ere.
- Aurreikusitako ekintzak gauzatzeko burutu beharreko tramitazioaren azterketa bat egin.

Beraz, Mankomunitateetako herriek ikusitako beharretatik abiatuz eta azterlan serio bat egin ondoren osatu da lehenago esandako kudeaketa plana. Plan Mankomunitateko Batzarrera bideratu zen eta han hamar herrik onartu zuten.

**Galderak. Talde txostengilea sortzeaz zein iritzia dute Batzar Nagusiek?**



- Batzarkide taldeei dagokie horren inguruan beren iritzia ematea. Edozein kasutan, horri buruz galdetzen didazunez, zera esan nahiko nuke. Enirio Aralarreko Mankomunitateari dagokio beren beharrak zeintzuk diren definitzea eta bere organoetan erabakiak hartzea. Hortik abiatuz osatutako Kudeaketa Plana gauzatzekoan, edozein ekintza martxan jartzen dela ere, ordenamendu plan eta gainerako araudiak eskatzen dituzten baldintzak beteaz egingo dela bermatzea administrazioari dagokigu. Eta prozedura horretan legeak bermatzen du edozein eragile edo herritarrek parte hartzea eta ekarpenak egitea.



## VIII. ERANSKINA: EREDUA VII



### Nekazaritza eta Landa Ingurunea, Mendiak eta Natur Ingurunea, Lurralde Oreka

Batzar Nagusietan agerraldia. 2017-02-28. Partzoneriako Baso eta Larreen ordenazio planak.

1 **Gipuzkoa eta Arabako Partzuegoan/hobekuntza/lanak/izeneko partida, Batzar Nagusietan/onartutako/zuzenketaren/kapituluz/aldatu arazi izana nola baloratzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak?**

Ondo iruditzen zaigu Partzuegoarekin adostutako aldaketa bat izan zela kontuan izanda.

2 **Orain arte Gipuzkoako Aldundiak Gipuzkoa eta Arabako Partzuegoari inbertsioak/egiteko/diru transmisioa egiten zion/eta Partzuegoak/urteko inbertsio/plana erabaki eta gero bere izenean/iritsitako/fakturak ordaintzen zituen/hemendik aurrera/nola/egingo da/kudeaketa?**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren/eta Partzuegoaren/arteko elkarlanari <sup>bera</sup> galdera honetan ~~bera~~ ematen dezuen azalpena/ez da/zuzena// Zuen azalpenaren arabera/ Gipuzkoako Foru Aldundiak/Partzuegoari inbertsioak egiteko diru transferentzia bat egiten zion// eta/ Partzuegoak/urteko/ inbertsio plana erabakitzen zuen// Baina hori ez da horrela// Inbertsio Plana/ ez du Partzuegoak berak bakarrik erabakitzen// Inbertsio Plana/Partzuego eta /Gipuzkoako Foru Aldundiaren/artean adostu egiten zen// ADOSTU// Behin Inbertsio Plana adostu ondoren/bi aldean/arteko Hitzarmena sinatzen zen/ inbertsio/planaren/finantziazio/hitzarmena hain zuzen ere// Hitzarmen honen



baitan, Partzuergoak Aldundiarekin elkarlanean gauzatzen zituen proiektuak eta lanen esleipena eta fakturen ordainketa Partzuergoari berari zegokion.

**Beraz, Inbertsio Plana bi aldean artean adostu izan da orain arte.**

Eta aurrera begira ere, Inbertsio Plana bi aldean artean adostuko da orain arte bezela. 2017. urteari begira, GFAko Mendietako zuzendaritzak VI. Kapituluari Partzuergoan hobekuntzak egiteko 120.000 eurotako diru partida izendatu du.

Partzuergoko Mendietan egin beharreko inbertsioak Lan Taldean adostuak izan dira. Bertan, Partzuergoko ordezkariak, lehendakaria barne, bi nekazal sindikatuetako ordezkariak, Partzuergoko ganaduzaleak eta Foru Aldundiko ordezkariak biltzen dira. Otsailaren 8an Partzuergoan ospatutako Junta bileran, Lan Taldeak proposatutako eskaerei oniritzi ematea erabaki zen eta honekin batera, Partzuergoko Batzordeak Gipuzkoako Foru Aldundiari lan hauek burutzeko eskaera luzatu zion (eskaera atxikitzen da).

Gipuzkoako Foru Aldundiak Partzuergoko Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu, bere egin eta Elkarlan Hitzarmena sinatuko du Partzuergoarekin.

**Aldaketa honekin Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoa urteko inbertsioak erabakitze eta kudeatzeko izan duen autonomia maila jaitsi egingo da, zer iritzi du Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoak?**



Aurreko urteetatik aurtengora/aldatu den gauza bakarra/zera izan da//bi aldeen artean adostu diren proiektuen eiekuzioa/ GFAk egingo duela/zuzenean// Baina/Inbertsio Plana/bi aldeen artean adostua izango da/ beti izan den bezela// Beraz, inbertsioak erabakitzeko eta gestionatzeko orain arteko autonomia maila/ez da jaitsi// alderantziz, autonomia maila haunditu egin da/azken aldian/hitzartutako diru kopurua/lau aldiz haundiagoa izatera pasa baita/legealdi honetan.

## IX. ERANSKINA: EREDUA VIII

Inaki Labaka

### BBNN AGERRALDIA 2017-II-28

#### LURRALDE OREKA ZUZENDARITZA

Lurralde Oreaka Zuzendaritzak bi atal nagusitan banatzen ditu/gaurko agerraldian azaltzekoak//  
hain zuzen ekitaldizka bereizten dituelarik//2016an/burururiko egintza nagusiak/eta/2017rako  
Taurrikusi dituen jarduerak esanguratsuak.

#### 2016 ekitaldia

Landagipuzkoa+7 egitasmoarekin zentratuta jardun da zuzendaritza hau// Ekainaren 2an  
Albizturren aurkezpen ofiziala egin zelarik/eszenifikazio moduan/Markel Olanoren eta Ainhoa  
Aipururen eskutik//Egitasmo horretan diseinaturik lau lan leerroak garatu ditugu neurri  
ezberdinetan//Segidan xehetasunak:

- Gipuzkoa osorako baserri bideak hobetzeko planingintza//Deialdi publikoa onartu eta  
argitaratu zen//eta/Aldundiak 2.000.000 €ko diru kopurua lagunduta 74 herri eta  
toki-erakunderen eskutik 148 proiektu gauzatu ziren//90 kilometro baserribide  
berrituz//Gaur egun erabilera publikoko 3.360 kilometro baserri bide inguru daude  
Gipuzkoan//eta horiek mantentzea eta berritzea da herriek, batez ere txikiak,  
egiten dituzten eskaera nagusietako bat.
- Gipuzkoa landa eremuko nekazariekin/elektrifikazioa berritzatzeko plana//Uztailaren  
28an sinatu zuten/Aldundiaren izenean/Markel Olanoren eta Iberdrolaren izenean/  
Fernando Llanerak//Iberdrola Distribución Eléctrica-ko/Ipar Eremuko zuzendariak//  
hitzarmenaren arabera/Legealdi honetan 37 transformadore berri ezarriko dira/eta/  
beste 17 zabaldu/eta tentsio baxu eta altuko linea berrietan 52 kilometro eraikiko  
dira//Programa honek 4,1 milioiko zenbatekoa izango du//hiru zatitan banatuta//  
Foru Aldundiak eta Iberdrolak 1,75 milioi jarriko dituzte datozen lau urteetan/eta/  
azpiegiturak berritzearen onuradunek gainontzeko 600.000 euroak jarriko dituzte.

## BBNN AGERRALDIA 2017-II-28

Joan den urtera/eta/Foru Aldundira mugatu ezker/ diru izendapena 375.000 €tako izan da.

- 2.500 biztanle/arteko/herritara/banda zabal ultraazkarra/barraitzeko plana Abenduaren 9an/Markel Olanok/eta/Ainhoa Aizpuruk/egindako/agerraldian aurkeztu zuten/Abiapuntua/0 baino askoz altuagoa izan delako/urte guztian zehar gertu gertutik jarraitu dio/Lurralde Oreka Zuzendaritzak/batzuek zein besteekin egin dituzten ibilbideak/eta/barnean berriz/bai teknikoki/bai juridikoki/behar adinako formak ematen jardun da zuzendaritza/behin eta berriz.

- 2.500 biztanle/arteko/herritara/Ekonomia/Suspertzeko/Planari buruz esan/Herri administraziokoekin/erronda bat/edo/gehiago burutu ditu/eta/lehen eskutik/jakin ditu/zein egitasmo/darabilzkien esku artean/arlo honi begira.

✓ Zerregin/erantsia bezala sailkatzen dugu, gertutasuna adieraztea herri txikiengan/eta/baliabide ezberdinetara/iris daitezkeen/erreztasunak/aurkitzen bidelagun izatea/Honen harira/Lurralde/Oreka/eta/Kohesio Soziala bilatze aldera/2.500 biztanle/baino/gutxiago/dituzten/48 herritara/zuzendutako/dirulaguntza/lerro bat deitu zen/864.000 €ko diru partida batekin/eta/projektu/oso/ezberdinak/finantzatu ahal izan dira/beharrak/oso desberdinak izan direlarik/herri batzuen/eta/besteen artean.

### 2017 ekitaldia

Aurtengo/ekitaldian/eta/ondorengoetan/garatuko diren/projektuak aurrera eraman ahal izateko/honako diru baliabideekin abiatzen gara/3.891.889 €ko aurrekontua.

- lazkoaren/oso antzekoa den/baserrri bideak hobetzeko/deialdi berri bat egin da/hil honatan bertan/eta/espíritu jarraitzailea dauka/Gipuzkoa/osoko/Udaletara/bideratu den lan lerro honek.

## BBNN AGERRALDIA 2017-II-28

- Nekazal elektrifikazioan /Gipuzkoa/guztiko/landa eremuak hartzen dira kontutan,// eta/esan behar da/orain arteko/zerrendako/eskatzailer batzuen proiektuak/ arrazoi ezberdinegatik/ bertan behera erutzen ari diren/arren/ eskaera berriak/izapidatzen eta onartzen ari gara/maiztasun jakin batekin/ elkartzen garenean/iberdrola enpresarekin.
  - 2.500 biztanle/ baino gutxiago/ dituzten herriak 49 dira /Ezki/eta/Itsaso/ bereiztu direnez ta gero/ Banda/zabal/ultraazkarri/dagokionez /herri hauetan/ operadore batzuk/ banda zabaleko sarea zabaltzen ari dira // eta/ horri esker /biztanle askok/ aukera izango dute /100 megatik gora segunduan nabigatzeko /edo/ telebistako /plataforma digital aurreratuenak/edukitzeko aukera izango dute //Gipuzkoako Foru Aldundiak/ sare ultra azkarrak/ eraztun/ moduan /barreiatutako/eraikinetara /eramateari helduko dio /lehen fase batean/ laguntza ildo bat irekiko da /herrigunetik 500 metro/ baino/ gertuago /daude/ baserri/eta/ ustiategi /2017 urtean zeara // laster/ burutuko den/ deialdi baten bitartez.
  - Herri txikienetako jarduera ekonomikoak /edota/ Sustapen Ekonomikorako Proiektu Estrategiak /garatuko ditugu //gure enpresen/ lehiakortasuna/ eta/ erakargarritasuna /haunditzeko/ bai/ jarduera berriak sortuaz /eta/ azalaratuaz/ bai/ daudenak sendotuaz / eta indartuaz/ /Azken batean/ /anpostu/ berriak/ sortzea/ da/ helburu nagusia.
- 2016an/hasitako/ bilera sortei/ jarraipena/ egingo zaie //Udalerrietara/ bisitak/ maizago/ burutuaz // eta/ bertan/ bai/ herri agintariekin / elkarte ezberdinetako kideekin / herrigintza dinamiketan dabiltzenekin / ekintzaileekin/ etabar/ bildu/ eta/ beraien/ ikuspuntuak/ jasotzen/ ahalginduko gara //Azken batean/ 2.500 biztanle baino gutxiago dituzten 49 herri hauetan /non/ Gipuzkoako /biztanlegoaren/ %5'5 (39.000 / 715.000) errolatuta dagoen /lurralde historikoko/ hirietan /dituzten/ maila/ eta/ baliabideen /desberdintasuna/ Europako/ txikiena /izatea/ bilatzen dugu // biztanlegoari/ gune hoieta/ eustea/ gain/ jarduera ekonomikoak/ eman daitezzen/ bermatuaz.